



Heldu eskutik, hau buka bitartean

Haurrekin esperientzia duten profesionalak behar dira
Prestakuntza Bereziko Espezializatutako Harrera Familiak programarako / 2-4



Europako hauteskundeak izanen dira igandean. Zenbait iritzi jaso ditugu / 6-7

Maila desberdinetan bada ere, ibarreko zazpi udalerrik despopulazio arriskua dute / 7

Olatzagutiko Udalak Hezkuntza Departamentuari jakinarazi dio haur eskola nahi duela / 9

Txirrindulari sakandarrek primerako Nafarroako Erlojupeko Txapelketa egin dute / 17

Hermoso de Mendoza kapitainaren agurrean, Aralar Mendik gutxigatik galdu zuen kopa / 18-19

Ikasturte berezia izan da IG Dantza Eskolan; lehiaketan ondoren, jaialdiak prestatzen ari dira / 21

SINADURAK



OIHANE ANDUEZA
IMIRIZALDU / 5



AUTOPISTA ELEKTRIKOIK
EZI / 5



JOSE LUIS ERDOZIA
MAULEON / 10



IRATI PELLEJERO
MARIN / 22



2024an kaleratu du Beietz! taldeak 'Sutan' diskoa; aurkezpen zuzenekoekin ari da / 23

"Jarrera arazoak eta emozio kalte handiak dituzten haurrendako da"

IÑIGO DONAMARIA VILLAVA PROGRAMAKO GIZARTE LAGUNTAILEA

Nafarroako Prestakuntza Bereziko Espezializatutako Jarrera Familiako programa zertan datzan azalduko diete sakandarrei asteartean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Administrazioaren tutoretzapean edo zaintzapean dauden haur eta nerabeak harreran hartzen dituzten familiak badira Sakanan. Bost harrera mota daude: larrialdiko harrera, aldi baterako harrera, harrera iraunkorra, etengabeke bizikidetzarik gabeko harrera eta espezializatutako harrera. Azken horretaz ariko gara. Premia edo egoera bereziak dituzten neska-mutilak baitaude, familia arruntetan harrera egitea bideraezina dela, eta beste harrera mota bat behar dutenak. **Zergatik da hobe familia batean egotea?**

Neska-mutil horietako asko harrera zentroetan daude eta hainbat arrazoiengatik ezin dira bere berezko familiekin bizi. Nafarroako Gobernuaren administrazioaren tutoretzapean daude. Legeak dio, babes neurri gisa, beti lehentasuna ematen zaiola haurrak familia batean hazteari. Horrek ez du esan nahi harrera zentroetan gaizki daudenik. Baina zentro horietan, askotan, profesionalek lanez aldatzen dute, beste lanetara

joaten dira. Familia testuinguru batean beste pertsona heldu baten pean egotea asko eskertzen dute, beti pertsona berdinarak direlako eta horiekin egiten duten lotura positiboa, konfiantza eta harremana mantentzen direlako. Horregatik, posible bada, haur horiek familia testuinguru batean egotea ongi ikusten dugu. **Onurak besterik ez ditu ekartzen.**

Ezin dugu ahaztu haur horiek zailtasun asko dituztela, askok kalte emozional handiak daukate, haurtzaroan bizitako zailtasunengatik, haien berezko familietan ikusi dituzten egoerarengatik, tratu txarrak jaso dituztelako edo bestelako arduragabekeria edo abandonu motak izan dituztelako. Horregatik, kalte emozional horiek lantzeko eta beren historian zehar izan dituzten zailtasunak ulertzeko eta laguntzeko, familia ingurunean bizitzea egoki jotzen dugu. Betiere haurren zein nerabeen instituzionalizazioa saihestuz, edo ahal bada mugatuz.

Prestakuntza Bereziko Espezializatutako Familia Jarrera zertan bereizten da?

Bi baldintza daude: familiako kide batek umeeekin gutxienez 2 urteko lan esperientzia izatea eta hezkuntzan, gizarte komunitate edo osasun arlotan ikasketak izatea. Ezagutza handiagoa izan behar dute, arreta handiagoa eskaintzeko. Borondatezko familia harreretan profil zail horiekin batzuetan oso zaila da elkarbizitza on bat mantentzea. Batez ere, haurren emozio kalteak, traumak edo izandako zailtasunak lantzeko, haien ongizatea lortzeko.

Arreta berezia behar duten haurrez ari garenean, zertaz ari gara?

Adinari erreparatuta, 7 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeendako programa da. Baina ikusten bada 7 urte baino beherako haur bat oso kaltetuta dagoela, programa horretan sar daiteke, haien ongizatea lortzeko. Eta haien jarrera ezaugarriak erreparatuta, jarrera arazo oso sakonak izaten dituzte. Beren berdinekin izandako erlazioak batzuetan oso zailak dira, ez dira guztiz onak, hitz egiteko modua batzuetan ez da oso egokia. Batzuk, nahiz eta haurrak izan, haurtzaroan izan-

dako tratu txar horiengatik, edo trauma horiengatik, buru osasuneko arazoak izan ditzakete, eta horien bidez batzuk ere ezgaitasunen bat. Orokorrean, jarrera arazoak dituzten haurrendako da, eta kalte emozional handiak dituztenendako.

Zein da harrera familia horien egitekoa?

Familiak eta lantaldeak (bi gizarte langile eta bi psikologo) batera lan egitea haur horien ongizatea lortzeko. Lehenik eta behin, familiak behaketa sakona egingo du haurrak dituen beharrei erreparatzeko. Esate baterako, funtzioetako bat litzateke txosten bat egitea esku hartze planifikatu batekin. Haurra kontuan hartuta helburu zehatz batzuk jarriko dira, sei hilero berrikusiko direnak, helburuak lortu diren edo ez ikusteko. Beste funtzio bat da beste profesionalekin koordinatzea, esaterako, ikastetxearekin etxeko lanengatik, eskolaz kanpoko jarduerak egiten baditu haien arduradunekin, osasun etxearekin... Denon artean koordinazio lan bat egitea guztiok zer lan egiten ari garen ikusteko, modu berean lan egiteko, eta erantzun berak emateko. Jarrera familiaren egitekoen artean daude astean behin egiten diren bilerak. Haietan hitz egingo dugu elkarbizitza, sor litezkeen arazoez, eta denon artean erantzun posibleak pentsatu eta irtenbideak bilatuko ditugu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak ezarritako plana bete behar-

"POSIBLE BADA, HAUR HORIEK FAMILIA TESTUINGURU BATEAN EGOTEA ONGI IKUSTEN DUGU"

"HAURREN EMOZIO KALTEAK, TRAUMAK EDO ZAILTASUNAK LANTZEKO, HAIEN ONGIZATEA LORTZEKO"

ko da. Horren barruan dago haur horiek berezko familia bisitatzea. Beraz, beste funtzio bat izango da berezko familiarekin egituratutako komunikazio bat egitea. Esaterako, hamabost egunean behin, ama edo aitari telefonoz hots egin beharko dio haurrak kontatzeko nola dagoen, baita haien laguntza jasotzeko ere. Nahiz eta berezko familia haurrarekin ezin den bizi, oso garrantzitsutzat jotzen dugu presente egotea eta haurren ongizaterako mezu egokiak ematea. **Familiak prestakuntza jasoko du?**

Bai. Lehenik eta behin, balorazio prozesua egingo da familia egokia den ikusteko. Prestakuntza jasoko dute balorazio prozesuan zehar, eta haurrarekin elkarbizitza dagoen bitartean ere. Kasu zehatza eta haurraren beharrak ikusita, haurrak dituen zailtasunei erreparatuta, prestakuntza zehatza emango da. Esaterako, sexu abusuek izan badituzte, edo erregulazio falta handia eta leherketa sakonak dituztenei nola eutsi edo lasaitzen jakiteko... Beharrak ikusita prestakuntza zehatza emanen da programatik. **Familiak bestelako laguntza jasoko dute?**

Bi laguntza mota izango dituzte. Lehenik eta behin, esandakoa, lantalde tekniko bat egongo da etengabeko laguntza emateko. Laguntza hori telefonoz eman daiteke egunero, hots eginez eta dauden beharrak azalduz, esku hartze plana batera elkarrekin pentsatzeko, helburu nagusiak zein diren aztertzeko. Gainera, larrialdietarako telefono bat egongo da. Telefono hori taldeko profesionalek izanen dugu, eta larrialdi arazoak suertatzen badira asteko zazpi egunetan 24 orduz arreta emango dugu. Esaterako, familiari emozio eustea emateko edo denon artean irtenbidea bilatzeko. Jarrera horiek ez dira errazak izango eta arreta oso sakona eskaini behar dela ulertzen dugu, harrera horiek ez hausteko eta denon artean aurrera jarraitzeko. Lantalde tekniko bat beraiekin batera beti lanean egongo da.



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Programako lantaldea osatzen dute: Naiara Bakaikuak, Iñigo Donamariak, Clara Eciendok eta Saioa Perezek. UTZITAKOIA

Ekonomia arloari dagokionez, bi laguntza egongo dira. Bat haurraren mantenu gastuak estaltzeko konpentsazio ekonomiko bat da, Nafarroako Gobernuarena 850 eurokoa da. Bestetik ordainsari bat emango da. Eta gero, lehen azaldu dudatan txostenak egitea, koordinazioak, behaketa pixka bat... Harrerako funtzio teknikoak egiteagatik ordainsari bat emango da: 3.600 euro gordin.

Lana utzi beharra daukate?

Programa horretan prestutasun osoa beharrezkoa da eta, beraz, bere lana utzi beharko luke ia osotasunean honetan lanean aritzeko. Jasoko duzunaren %25ekoa baino gehiago emanen dizun beste lan batean ezin duzu egon. Hau da, programan sartuz gero, esaterako, akademia batean klase batzuk eman ditzakezu ordu batzuek, baina hortik ateratzen duzun diruak ezin du gainditu programatik jasotzen duzunaren %25a. Esperientziak esaten diguna da pertsona askok bere lanean baimenak eskatzen dituztela, eszedentzia hartzen dute edo lana uzten dute momentu horretarako, eta baita bere hazkunde profesionala garatzeko ere.

Gaur egun familia eredu ugari daude. Guztiak onartzen dituzue?

Ulertzen dugu gizartea aldatzen joaten dela eta familia eredu ugari daudela. Beraz, programa honetan egon daitezke bi kidez osatutako familia, seme-alabak dituzten edo ez dituzten familiak eta baita guraso bakarreko familiak ere. Jartzen dugun baldintza bakarra da pertsona batek esperientzia eta prestakuntza izatea. Familia tipologiari erreparatuta ez dago inolako debekurik edo inolako arazorik.

Haurrak berezko familiarekin harrerean izanzen duela aipatu duzu.

Bai. Nafarroako Gobernuak markatzen duen bezala, neska-mutil horiek, orokorrean, haien berezko familiak bisitatzen dituzte. Guk, lantalde teknikoak, familia horiekin ere lan egiten dugu, haiek ere ulertzeko nora joan behar diren bere seme-alabak eta uler dezaten zer garrantzia duen haiek presente egotea haurren ongizatea sustatzeko. Esaterako, bisitetan batzuetan ikuskapena egiten dugu edo gu han egoten gara, pixka bat mezu egokiak emateko, baita ere baimen emozional bat emateko. Zeren ulertu behar da haur batendako batzuetan oso zaila dela beste familia batera bizitzera joatea,

bere berezko familiak ez badio baimen hori ematen. Horregatik, berezko familiarekin lan egiten dugu, mezu egoki horiek emateko eta haurrari ahal den lasaitasuna emateko.

Berezko familia oso garrantzitsua da. Egoera kaskarra bizi arren, ezin dugu ahaztu haurren berezko familia dela, asko maite dute eta bere familiak emandako mezuak, segur aski, guk emandakoak edo harrera familiakoak emandakoak baino garrantzitsuagoak dira. Horregatik beti saiatzen gara familia horiekin elkarlanean aritzen, eta saiatzen gara mezu horiek duten efektua haiei ikustarazten.

Hiru aldeak ikutzen dituzuela.

Hiruki bat balitz bezala lan egiten dugu, eta hiru aldeak oso garrantzitsuak dira. Alde batetik, hirukiaren goiko partean haurra egongo litzateke, alde batean egongo litzateke espezializatutako harrera familia eta beste aldean egongo litzateke berezko familia. Lantalde teknikoak kanpoan dago. Gure lan egiteko modua da denon artean esku hartze sistemiko bat egitea, non hiru aldeak oso garrantzitsuak diren. Harrera familiak egin behar duen lana argi izan behar du, baina ezin du ahaztu baita haur edo

nerabe horrek ere berezko familia duela eta denon artean lortu behar dugula hortik ez mugitzea haurra, denon aldetik mezu bera jasotzea eta haren ongizatea gusatztea.

Horregatik ere sustatzen dugu harrera eta berezko familien arteko erlazioa egotea, umeak ere ikusteko, haien artean infor-

"LANTALDE TEKNIKO BAT EGONGO DA ETENGABEKO LAGUNTZA EMATEKO"

"HARRERA HORIEK EZ DIRA ERRAZAK IZANGO ETA ARRETA OSO SAKONA ESKAINI BEHAR DA"

"PROGRAMAN PRESTUTASUN OSOA BEHARREZKOA DA, BERAZ, LANA UTZI BEHARKO LUKE"

mazioa pasatzen dutela eta denak zer pasatzen ari den dakitela, dena ahal den hoberen ateratzeko. Elkarlan bat da. Batzuetan ez da erraza, baina elkarlana lortzen bada umearendako oso lasaigarria da, eta emaitza onak dira. Gu hiru aldean gainean gaude.

Zer esku hartze mota egiten dituzue aldeekin?

Esaterako, haur bat familia harrera batera joan behar denean, guk lehenik eta behin berezko familiarekin lan egiten dugu. Aurkezpen horretan haurraren berezko familiak harrera familia ezagutzen du. Berezko familiak haurrari buruzko ezaugarriak eta hainbat gauzak kontatzen ditu. Hori helduen arteko aurkezpena da. Horren ondoren haurrari esaten diogu bere amak edo aitak familia harrera ezagutu duela eta bere aita edo ama gai izango dela aurkezpen bat egiteko eta haurra harrera familiarri aurkezteko.

Beste esku hartze batean, berezko familiak haurrari azalduko dio momentu horretan ezin diotela lagundu, ezin dela berekin bizi, baina beste familia batekin egongo dela. Horrek haurrengan efektu oso positiboa du ikusten dutelako emozio baimena ematen diotela. Eta ikusten du denon artean errespetuzko erlazioa eta erlazio ona dagoela. Ez dira esku-hartze errazak izaten, duen emozio kargarengatik eta, azken finean, berezko familiarendako oso gogorra delako bere haurra beste familia batera bidaltzea, edo baimen hori ematea. Baina haurrendako oso lasaigarria da eta dituen beldur asko eta zalantza edo galdera asko hor moztzen dira.

Ondoren, egunean zehar sortzen diren arazoak. Guk jatorrizko eta harrera familiekin hitz egitea. Batzuetan harrera familiak ez du hainbeste ezagutzen haurra, baina berezkoak bai. Beraz, berezko familiak askotan gauza ugari esaten dizkigu, funtzionatzen duten teknika pasatzen digute eta elkarlan polita sortzen da.

Epe jakinik badago harrera mota horretarako?

Bi egoera izan daitezke. Nafarroako Gobernuak erabakitzen badu haurra ezin dela familiarekin bizi, berezko familiak bi urte ditu plan bat burutzeko, eta helburuak betetzen baditu haien umea berreskuratuko du.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »



Programa jarrera arazoak dituzten haurrendako da, eta kalte emozional handiak dituztenendako. UTZITAKOA

Beraz, hor bada bi urteko iraupena duen harrera. Horiek pasata ikusiko da neska edo mutil hori berezko familiarekin bueltatu ahal den edo ez. Bestela, betirako harrera izango zen. Eta, orduan, haurra heldutasunera iritsi arte harrera familian egongo litzateke. Baina, beno, programa horretan berezko familiarekin lan egingo da beti. Lau urte pasata, bosgarrenean berezko familiak helburu horiek mantentzen baditu, haurra familia batera pasako da.

Esate baterako, harrera familia batean dagoen 8 urteko neska bat. Nafarroako Gobernuak markatzen duen bezala, harrera iraunkorra izango da. 12 urte dituen bere ama edo aitak prozesu egokia egin badu eta helburuak bete baditu, agian buelta daiteke. Bestela, 18 urteak bete arte geldituko da. Betiere, bisitak mantenduz. Aukera dago bisita horiek areagotzea, edo, agian, pixka bat kentzea.

Beti lortzen da berezko familiarena bueltatzea?

Egia esanda, ez da kasu askotan lortzen, oso zaila delako batzuetan familia horiekin helburu guztiak betetzea eta testuinguru egokia egotea haurra bueltatzeko. Guri gustatuko litzaigukeena, eta umei edo nerabeei galdetuz gero, haiek desiratzen dutena bueltatzea da. Azken finean, bere gurasoekin bizi nahi dute, eta hori izango litzateke onena. Bestela, jatorrizko familia mantendu behar da, erreferentzia hori ez

galtzea, positiboagoa bihurtzea. Eta harrera familiarekin bestelako kompetentziak landu, gauzak egiteko beste modu bat ikustea, erreferente positiboak izan. Eta 18 urterekin, heldua bihurtzen denean, bizi kalitate ona izan dezala, emozio kalteak edo traumak landuak izatea, min gutxiago izatea. Heltzean erabakiko luke edo bueltatzea edo harrera familiarekin jarraitzea.

Zer egin behar da espezializatutako harrera familia izateko?

Lehenik eta behin, guk informazio hitzaldien bidez programari buruzko informazio sakona ematen dugu. Prestakuntzak, laguntzak eta profilaren adibideak jartzen ditugu. Bi informazio hitzaldi izango lirateke, ordu erdikoak dira. Familiak aurrera egitea nahi badu, Nafarroako Gobernuan izena eman behar du eta redesafe.org webgunean dagoen dokumentazioa aurkeztu behar

"FAMILIA TIPOLOGIARI ERREPARATUTA EZ DAGO INOLAKO DEBEKURIK EDO INOLAKO ARAZORIK"

"AZKEN FINEAN, BERE GURASOekin BIZI NAHI DUTE, ETA HORI IZANGO LITZATEKE ONENA"

du (lan bizitza, curriculum...). Dena ongi badago, balorazio prozesu bat egingo dugu, hiru elkarriketa izango ditugu familia pixka bat ezagutzeko: haien bizitza historia jakiteko, sakontasunean ikusteko ea zer familia mota den, nola ikusten dituzten arazoak, zer gauzak gertatu zaizkion haurtzaroan eta nola gaur egun hori eragiten dion edo ez.

Hiru elkarriketa horien ondoren hasierako prestakuntza bat jasoko dute. Prestakuntza pixka bat orokorra izango da: esku hartze teknika, esku hartze planak nola egin eta nerabea edo umea sentitzen dutena sentiaraziz, lana nola egin jakiteko. Hori bukatuta beste elkarriketa mota bat egingo da. Kasu praktikoa bat emango diegu eta familia horrek guk emandako irakurketa batzuei esker haiek interbentzio plan bat egin beharko du, helburuak jarritz. Guk ebaluatuko dugu familia hori programetan parte hartzeko gai den edo ez. Balorazio prozesu horrek bi hilabeteko iraupena izan dezake. Balorazio prozesua bukatzeko, familiaren etxera joango gara baldintza egokiak dituela bermatzeko eta familiako beste kideak ezagutzeko.

Noiztik dago martxan harrera mota hori?

Gipuzkoan programa 2007tik dago martxan. Orain beste autonomia erkidegoetan ezartzen ari dira: Euskal Autonomia Erkidegoan Araban, Madrilan, Katalunian eta Nafarroan. 2022tik dago mar-

txan aipatutako lurraldeetan. Urte akaberara arte irauken du programak. Next Generation funtsek finantzatu dute. Epea bukatuta hemen Nafarroako Gobernuak hartuko du programaren ardura.

Zein emaitza eman du Gipuzkoan?

Emaitza positiboak izan dituzte. Haur asko pasa dira programatik, ehun edo gehiago. Orain 30 pasa dituzte. Heldutasunera heltzen direnean programan izan diren ume eta nerabeekin hitz egin dute eta esan dute oso eskertuta dardela: familia testuinguru batean hazi direlako, beraien bizi kalitatea hobeto delako, bizitzan dauden zailtasunei aurre egiteko gauza asko ikasi dituztelako eta teknika eta gauza berriak barnerratu dituztelako. Guk gipuzkoarregandik prestakuntza jasotzen dugu ahalik eta esku hartze one-

na egiteko, eta haiek lan moldea ezagutzeko.

Honen guztiaren berri nola zabaltzen duzue?

Joan zen urtean eta aurten hitzaldiak eman ditugu. Altsasun, Iortia kultur gunean, hilaren 11n, asteartearekin, 17:30ean emanen dugu. Programak 24 siete film laburra egin zuen, Goya sarietarako izendatuta egon zen. Ikus-entzunezkoak asko laguntzen du. Fikzioaren bidez errealitateara asko hurbiltzen da eta espezializatutako harrera familia nola izango litzatekeen azaltzen du. Film labur horren emandaren ondoren jendeari programa azaltzeko solasaldi txiki bat egingo dugu. Iruñean eta Erriberan izanak gara, Nafarroan barna gabiltza. Pitteka, profesionalei, horren berri ematen saiatzen ari gara.



EKAINAK 10-14

- 10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta**
- 10:15 Prentsaren azala**
- 10:20 Albisteak eta kirolak**
- 10:30 Hizketan**
- 11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin**
- 14:00 Errepikapena**

Hizketan

- Ekainak 10 Bizikleta konpontzaileak**
- Ekainak 11 Eskudoinuak kanala (Igor Ijurra)**
- Ekainak 12 Bertso saioa (Bertsoa.eus)**
- Ekainak 13 Mitxel Elortza idazle eta ipuin kontalaria**
- Ekainak 14 Agenda berezia**





ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

Udaberri, irri, irri

Udaberri honek, besteek bezalaxe, loratzeko aukera eman digu. Ama Lurrarekin bat eginda antzinako arbaso politeistek egiten zuten lez, naturaren elementuak gurtuz eta honen ziklo eta prozesuekin bat eginez.

Amaitezinezko gurpil batean urtetik urtera, inongo etenik gabe, berpizteko, loratzeko, umeak izateko... aukera izaten dugu. Ez du zergatik modu literalean izan behar, sinbolikoan ere izan liteke, eta soilik barne jarrera batean islatu.

Hau egiteko, aldiz, denbora behar da. Kontenplaziorako denbora. Paseoan joateko denbora, natura arretaz behatzeko denbora, isiltasunean txorien kankak entzuteko irekiera... Antolatutako denbora eskasa daukagula esatera ausartuko nintzateke. Lana, umeen eskolaz kanpokoak, etxeko lanak, erosketak...

Gero, norberak, bere aukera egiten du, eta noski, oso errespetagarria da. Dena dela, udaberriak dakarren irrika eta zirrara azpimarratu nahiko nuke, udaberria, aukera bat baita. Aukera bat! Berriro ere errepikatuko dut, aukera bat! Iragarkietan behin eta berriz esaten diguten bezala, eskaintza, pagotxa, mauka

EGIN DEZAGUN HUTSUNE BAT GURE BAITAN ETA JOAN GAITEZEN NATURAZ BLAI EGITERA

gehitzen naiz. Aizue, udaberriaren irri, irri. Egin dezagun hutsune bat gure baitan, gure betetako agendan eta joan gaitezen naturaz blai egitera. Segi loreak behatzera, sendabelarrak hartzera, txoriak entzutea, errekek ikustera eta inguruaren berdetasunaz gozatzera. Orain da momentua!

Polita litzateke ere, kanpoan gertatzen ari den mugimendu hau gure baitara ekartzea. Ausar gaitezen, beraz, gure baitako lore ederrak munduari oparitzera. Inongo ekaitza edota kazkabarraren beldurrik gabe, izan ere, loratzearen ekintza baita ederrena, ez lore horrekin zer gertatuko dena. Ama Lurrak egiten duen bezala.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Itzalaldiak eta sistema pribatuak

SAKANAKO AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZI PLATAFORMA

Maiatzaren 22an espainiar estatuko sistema elektriko guztia itzalaldi baten arriskuan egon zen. Komunikabide batzuk egoera arriskutsu hau baliatu nahi izan dute enpresa elektriko pribatuen alde egiteko. Baina datuek bestelako arrazoiak azaleratzen dituzte. Espainiar estatuan batzuz besteko kontsumoa 26 GWkoa da. Kontsumo handieneko unetan, gailurra deitzen dena, 41 GWkoa izaten da, baina ekoizpen ahalmena 120 GWkoa, hau da, momentu gorenean kontsumitu dezakegunaren hirukoitza. Nola da posible hortaz, hiru aldiz gehiago ekoiztu ahal izatea eta

hala eta guztiz ere, itzalaldi baten arriskuan egotea?

Alde batetik, sistema berriztagarriak jo eta ke energia sortzen ari direnean, prezioak izugarri jaisten dira, zero mugaraino. Bestetik, bat batean energia gehiagoren beharrean gaudenean enpresa pribatu batzuek, ziklo konbinatuko gas zentralak kasu, ez dute abian jartzea nahi energiaren prezio baxuengatik.

Hau guztiagatik, gaur egun, ezinbestekoa daukagun energia ezin daiteke soilik interes ekonomikoak mugitzen dituen enpresa pribatuen esku utzi. Bestetik, energia berriztagarria aldizkakoa denez, asko instalatu behar da eraginkorra izan dadin eta gai-

nera, erregai fosilak erabiltzen dituzten zentral sortzaileak behar ditugu, badaezpada. Bukatzeko, jendartearendako hain beharrezkoa den energia ezin da esku pribatuetan utzi eta honen sor-kuntza eta banaketa sektore publikoaren menpe egon beharko luke.

Sakanari dagokionez, energiaren espekulatazileek aurrera darraite. Espainiako Sare Elektrikoa (REE) onarturik ez daukan linea berrirako lurrak eta bidezidorrak erosten saiatzen ari da. Forestaliako bi lineei baimena eman dio Madrilgo gobernuak, ez ordea oraindik, Nafarroakoak. Bien bitartean, aldaketa klimatiko eta krisi ekosozial honetan Sakana mailako komunitate energetiko bat sortzeko urratsak ematen hasi dira batzuk. *Intzaun bat beekin!*



OBJEKTIBOTIK

**Gernika-Palestina Herri Ekimena**

@GerPalesti2023

GENOZIDIOA GELDITU! ELKARTASUN AKTIBOIA ETXARRI ARANATZ
Seinaletika ere aprobetxatu da salaketa gauzatzeko. #STOPGenozidioa
#EuskalHerriakElkartasuna

www.guaixe.eus**Maketatzailea:**Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus**GK diseinu zerbitzua:**Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus**Administrazioa:**Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus**Zuzentzailea:**

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Erredakzio burua:**
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus**Erredakzioa:**
Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus**Irratia:**
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074**Publizitatea:**
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245**Koordinatzailea:**
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus**ARGITARATZAILA:**
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275**Gobierno de Navarra**
Nafarroako Gobernuak

Europako hauteskundeak

Sakanako hautagairik ez dagoen hauteskundeak dira Europakoak, igandekoak. Deialdiari buruzko iritzi eske jo dugu alderdi eta koaliziotako afiliatu eta kargudunengana

SAKANA

Europako hauteskundeetara 34 hautagaitza aurkeztu dira. Hauteskundeak nola bizi dituzten jakiteko hainbat alderdi eta koalizioen atea jo dugu. Jasotako erantzunak, iritsiera ordenean, hemen dituzu.

Bestetik, hauteskundeen emaitzen berri guaixe.eus webgunean emanen dugu astelehen goizean.



PEDRO SANTANO CAVA
ALTSASU

Alderdia/Koalizioa: Ezker Batua
Kargua: Afiliatua
Europako hautagaitzaren izena: Sumar

Ez zara hauteskunde hautagaia, baina hauteskunde kanpainan parte hartzen ari zara?

Bai, Nafarroako Ezker Batuko afiliatua naiz, eta gainontzeko kideak bezala SUMARren (EB kiden koalizioa) kanpainan parte hartzen ari naiz.

Zein da zure egitekoa?

Sakanan SUMARren proiektua eta proposamenak ezagutzera ematea.

Hauteskundeetan hautagai izan edo ez, aldaketarik nabari da kanpaina bizitzeko moduan?

Bai horixe. Hautagaiek lehen pertsona eta intentsitate handiz bizi dute kanpaina, lurraldea iparraldetik hegoaldera ibiliz. Hautagaiek ez garenok, lasaitasun handiagoarekin eta gure prestutasunaren arabera, ahal dugun guztian laguntza ematen saiatuz; kartelak itsatsi, propaganda banatu, ekitaldietan lagundu... eta, batez ere, gure hurbileko jendeari gure proposamenak azalduz eta ezagutaraziz.

Zer mezu ari zarete zabaltzen kanpainen?

Zabaltzen ari garen mezua da Europako Hauteskundeak oso garrantzitsuak direla, gure lurraldeetan aplikatzen diren lege eta araudien zati handi bat Europan erabakitzen direlako. Murrizketa ekonomikoaren eta gerraren egungo Europar Batasunaren aurrean, SUMARrek alternatiba sozial bat defendatzen du Europarendako. Eta ezinbestekoa da Europan SUMARren ordezkariak egotea, herritarren eta langileen eskubideak eta interesak defendatzeko.

Zergatik eman behar dizuete botoa?

Gu ezker politiko, sozial eta sindikalari botoa eskatzen ari gara, politika ausartak eta kementsuak nahi baititugu, bakezaletasunaren, ekologismoaren eta feminismoaren balioetan sustraituak. Guk gure boto emaleei lana, lana eta lana bakarrik agintzen diegu. Konbentzitu gaude SUMARrek Europan norabidea markatuko duela.



BEL POZUETA
ALTSASU

Alderdia/Koalizioa: EH Bildu
Kargua: Diputatua
Europako hautagaitzaren izena: Orain Errepublikak

Ez zara hauteskunde hautagaia, baina hauteskunde kanpainan parte hartzen ari zara?

Bai, noski. Pernando Barrena da gure zerrendaburua, baina alderdiko kide guztiei dagokigu euskal herritarren ahotsa Europan eramateko lan egitea. Europan gure eguneroko bizitza arautzen duten araudien %70 hartzen dira; beraz, denoi eragiten digu. Garrantzitsua da estatutik gabeko nazioak Europako parlamentuan ordezkatu egotea, horregatik goaz BNG, ERC eta ARA MES

alderdiekin Orain Errepublikak koalizioan.

Zein da zure egitekoa?

Ekitaldietan ari naiz parte hartzen, ostegunean Pernandorekin batera Tafallan egon gara. Garrantzitsua da jendeari Europan izango ditugun lehentasunak eta mezua helaraztea.

Hauteskundeetan hautagai izan edo ez, aldaketarik nabari da kanpaina bizitzeko moduan?

Pertsonalki presioa beste bat da, noski, orain nire kasuan lasaia. Baina ilusio eta indar

berdinarekin ari naiz parte hartzen.

Zer mezu ari zarete zabaltzen kanpainen?

Jokoan dagoena da ultraeskuinaren eta aukera neoliberalen gorakadaren aurrean, pertsonak erdigunetik jartzen dituzten ezkerreko proposamenak indartzea, bakea eta ez gerrak sustatzen dituztenak, faxismoa geldituko dutenak eta herrien Europa defendatzen dutenak. Ez bagara mugitzen, guk uzten dugun hutsunea beste norbaitek hartuko luke. Eta orain

ultraeskuina izan daiteke. Beraz, garrantzitsua da bozkatzea joatea.

Zergatik eman behar dizuete botoa?

Autoritarismoaren eta ultraeskuinaren aurrean euste horma izan den eta den nazioa gara, eta gauzak aldatu daitezkeela erakutsi dugu, hemen Nafarroan esaterako. Europan egitea dagokigu orain. EH Bildu-Orain Errepublikak da Euskal Herria, herri ikuspegi batetik, Europan ordezkatu egoteko aukera bakarra.



UNAI HUALDE IGLESIAS
ALTSASU

Alderdia/Koalizioa: Geroa Bai
Kargua: Parlamentuko Presidentea
Europako hautagaitzaren izena: CEUS

Ez zara hauteskunde hautagaia, baina hauteskunde kanpainan parte hartzen ari zara?

Bai, gogo handiz gainera. Beti arduratu naiz kontu politikoekin eta lagundu dezakedala uste dut, VOX bezalako alderdiek erakundeetan ordezkari izateak dituen ondorioak bizitzen ari bainaiz ere Parlamentuko presidente moduan.

Zein da zure egitekoa?

Gizarteari mezu argia bidaltzeko helburuarekin ekitaldi ugari hartu dut parte: europar hauteskunde hauek duten garrantzia erakusteko, guregan eragina duten gai asko Europan erabakitzen baitira; eta ahots propioarekin egitearen garrantzia ere, Geroa Bain proposatzen dugun moduan.

Hauteskundeetan hautagai izan edo ez, aldaketarik nabari da kanpaina bizitzeko moduan?

Agendak hain eragin zuzena ez edukitzea nabaritu daiteke, baina erantzukizun bat duzunean, kasu honetan nik Geroa Bairekin dudana, ezin zara geldirik geratu.


Zer mezu ari zarete zabaltzen kanpainen?

Europa hobe bat eraikitzeko 160 proposamen zehatz dituen gure programa seriotasunez eta zorrotasunez azaltzen ari gara, eta horren baitan Nafarroak

neurri horiek ahots propioarekin defendatu behar ditu eta autoritarismoei eta populismoei aurre eginez beti.

Zergatik eman behar dizuete botoa?

Geroa Bai, eta gu bere baitan gaituen CEUS koalizioa, Nafarroa ahots propioarekin defendatzearen bermea da. Izatez, Nafarroaren ahots propioa Europako Parlamentura iristeko berme bakarra.



LUIS ENRIQUE DE LA CALLE MORENO IRURTZUN

Alderdia/Koalizioa: UPN
Kargua: Zinegotzia

Hauteskunde hautagaia ez zarenean, hauteskunde kanpainan parte hartzen duzu?

Hautagai ez izateaz aparte, nire alderdia, UPN, ez da Europako hauteskundeetara aurkeztzen, beraz, ez da parte hartzen. Hauteskunde kanpaina beste edonork bezala bizi dut.

Zein izaten da zure egitekoa?

Bat bera ere. UPNk hautagaitzarik aurkeztu ez duenez ez dugu ezer berezirik egin behar.

Hauteskundeetan hautagai izan edo ez, aldaketarik nabari da kanpaina bizitzeko moduan?

Jakina. Ez da ekitaldirik egin behar, ezta kanpainarik eta abar. Lasaiago gaude.

UPNk ez du hautagaitzarik aurkeztu.

Entzundakoetatik, zein mezu egin zaizkizu deigarri?

Batez ere, Nafarroako errealitatea ezagutzen ez duten alderdi asko daudela erakusten duten mezuak. Esate baterako, hitzarmen ekonomikoaz hitz egiten dutenean. Bestalde, deigarria da alderdiren batek UPNren botoaz jabetzeko egin duen ahalegina.

Botoa emanen duzu? Zergatik?

Bai, botoa ematera joango naiz. Uste dut nire botoa emateko eta demokrazian parte hartzeko eskubidea erabili behar dudala.

Despopulazioak jotako zazpi udalerrri

Kontuen Ganberak despopulazioari buruz argitaratu duen txostenean, maila desberdinean bada ere, honako udalerriek dute despopulazio arriskua: Uharte Arakil, Arruazu, Ergoiena, Bakaiku, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordia

SAKANA

Kontuen Ganberak Nafarroako despopulazioari buruz argitaratu duen txostenaren arabera, 1992 eta 2022 urteen artean Nafarroako biztanleria %27 hazi da, eta, aldi berean, udalerrien erdiak baino gehiagok (%56) biztanleria galdu dute, denak 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Gaur egun, Nafarroako 166 udalerririk dute despopulazio arriskua, guztien %61. Arrisku handien duten eremuak Pirinio, Pirinio aurreko, Zangozako eta Lizarrakoak dira. Baina Sakana ez da despopulazioaren fenomenoik bazter gelditzen.

Toki Administrazioiko eta Despopulazio Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako despopulazioari buruz 20121ean egindako lanari erreparatu diote, eta ikusi dute despopulazio zerranda horretara udalerririk batzuk sartu eta beste batzuk atera direla. Zerrendatik atera den udalerrietako bat Arakil da. Baina Sakanako beste zazpi segitzen dute.

Despopulazio arriskua bost mailatan sailkatu dute. Lehengoan despopulazio muturreko arriskua duten udalerririk daude (8 biztanle/km² edo gutxiagoko populazio-dentsitatea). Maila horretan ez dago Sakanako herririk. Bigarrena da despopulazio-arrisku bizia dutenak. (8 eta 12,5 arteko bizt./km² populazio-dentsitatea). Ergoienak maila horretan segitzen du. Despopulazio arrisku handia duten udalerririk daude hirugarren mailan (12,5 eta 25 arteko bizt./km² dentsitatea, eta biztanleria gutxitzea 1989tik 2022ra). Aurreko txostenean bezala, hor segitzen dute Uharte Arakilek, Arruazuk eta Ziordiak. Laugarren mailak gainbehera bizia duten udalerririk hartzen ditu, eta ez dago Sakanako udalerririk (biztanleria %15 edo gehiago murriztea 1989tik 2022ra eta 25 bizt./km²-



Ziordiarra Dona Luzia kalean. ARTXIBOA

tik gorako biztanleria-dentsitatea). Eta, azken mailan, gainbehera ertaina duten udalerririk hartzen ditu. (biztanleria %15etik behera murriztu zen 1989tik 2022ra eta 25 bizt./km² tik gorako biztanleria-dentsitatea). Aurreko txostenean hor zeuden Bakaiku eta Urdiain. Eta orain Olatzagutia batu zaie, gainbehera ertaina adierazten duen laugarren mailatik bosgarrenera pasa baita.

Lege premia

Kontu Ganberak eskatu du despopulazioaren kontrako foru lege bat onartzea. Hark neurri izan beharko lituzke "ekonomiko, fiskal eta administratiboekin, herri kaltetuenetan biztanleen galera geldiarazteko". Txostengileek azpimarratzen dutenez, "despopulazioa arazo konplexua da, hainbat arrazoi eta faktorek eragindakoa. Horiek Estatuan eta Nafarroan egindako azterlan eta planetan identifikaturik daude". Aldi berean, despopulazioaren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren zerbait ekimen aipatzen ditu, nabarmenduz joan den urtean onartutako Despopulazioaren

kontrako Estrategia. Horrek hainbat ekintza eta proiektu planifikatzen ditu arazoari modu zeharkakoan aurre egiteko. Estrategia hori urte anitzeko plan batean eta urteko plan operatiboan zehaztu behar da. 2023an ez ziren onartu, ez bata eta ez bestea.

Jarduera egoki gisa Pirinioetako Plan Estrategikoa jarri dute, "partaidetza eta zeharkako gobernantza bultzatzen baititu. Eta eredu egokia da despopulazio arriskuan dauden beste eremu batzuetan aplikatzeko".



Kultur gunean jaso daitezke bonuak.

Altsasu Bonuaren eskaera bizia dago

Tokiko merkataritza sustatzeko 1.250 bonu daude eta, dagoeneko, 950 banatu dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak, Altsasuko Dendarien Elkartearekin (ADE) elkarlanean, Altsasu Bonoa 2024 kanpaina martxan jarri du. Bonuak hilaren 14ra arte banatuko dira, eta haiek erabiltzeko epea hilarekin batera despedituko da. Haietako bat eskuratzen duenak kanpaina atxikitako 49 saltokietako batean erabiltzeko aukera izanen du. Bonuak aukera emanen du establezimenduetan 40 euroko erosketa egin eta 30 euro ordaintzeko. Hau da, %25eko deskontua izango du. Egitasmoak 15.000 euroko aurrekontua du eta 50.000 eurotik gorako jardura ekonomikoa sortuko du.

BAKARREKO ETXEA ELKARTEAREN ALOKAIURUA 2024 FESTETAN

Bakaikuko Bakarreko Etxea elkarteak bi lokal alokatzen ditu uztailaren 24tik 28ra bitarte ospatuko diren festetan. Alokairua lortzeko baldintzak hurrengoak dira:

- Espazio BAKOITZAREN ALOKAIURUA 1.500€koa izanen da.
 - Bi lokalak alokatzeko izena emateko EPEA EKAINAREN 15AN bukatuko da. Gutun azalak egunean bertan arratsaldeko 17:00etan irekiko dira, elkarte zuzendaritzan (bertaratzeko aukera dago).
 - Eskaintza elkartearen aurretik dagoen postontzian sartu beharko da, gutun azal itxi batean hurrengo informazioarekin: Lokal aukera (zulo/elkarte handia), Izen abizenak, Telefonoa eta eskainiko diren zerbitzu/ordutegiak.
 - Elkartearen bazkideek eta herritarrek edukiko dute lehentasuna.
- Zalantzak argitzeko 660 698 738 telefonora edo bidali posta elektronikoa bakarrekoetxea@gmail.com helbidera.

Kulturen arteko zikloaren agur gozoa

Munduko arrozekin despeditu zen hainbat eragilek antolatutako kulturen arteko zikloa. Aurten elkartasunari bideratutakoa izan da. Haren fruituak urte akabera aldera ikusiko direla jakinarazi dute antolatzailleek

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Hainbat eragilek elkarlanean antolatutako bigarren kulturen arteko zikloa bukatu da. Anitzartean zerbitzuko gizarte hezitzaile Begoña Zestau Baraibarrek azaldu duenez, zikloa "oso baikorra, positiboa eta pozgarria. Erabat parte hartzailea izan da dena, prozesu osoan". Zestauk esan duenez, zikloan "inoiz baino jende gehiago izan da, bai antolaketan, bai parte hartzen. Inoiz baino aniztasun eta aberastasun gehiago". Horrek ekarri du "neurri handi batean helbu-

ruak betetzea, hau da, Irurtzunen eta Arakilen dagoen aniztasuna plazaratzeaz aparte, elkar eza-gutzatik harago, batzuetan elkarrekin hartu-emanak sortzea, edo sendotzea".

Zikloa elkartasuneko ere izan dela nabarmendu du gizarte hezitzaileak: "oso zapore gustagarria eta gozoa utzi digu". Azaldu duenez, ekimen guztietan Palestina presente egon da. "Ereindako" elkartasunaren fruituak ikusteko "pixka bat itxaron beharko dugu oraindik". Jakinarazi duenez, Jerejef elkarteak

apirilaren 13ko azokan jasotakoarekin Senegalgo eskolan eginen duenaren berri urte akaberan edo berriaren hasieran emanen du. Irurtzongo plazan elkartu ziren jostunen lana, berriaz, azaroan edo abenduan izanen da ikusgai. Zestauk "zikloa posible egin dutenei eskerrak" eman dizkie, eta, dagoeneko, hirugarren zikloa prestatzen ari direla jakinarazi du.

13. munduko arrozak

Irurtzongo plazako arkupean hamahiru su piztu ziren larun-

batean goizean. Haietan jakiak prestatzen aritu ziren goizean zehar eta eguerdia pasata hurbildu ziren irurtzundarrei dastatzera eman zieten. Zapore festa ederra eskaini zuten Senegal, Irurtzun, Bielorrusia, Pikuxar, Errumania, Maroko, Atakondoa, Cali, Bolivia, Gambia, Ekuador eta Valentziako sukaldariak. Lehen plater gisa prestatutako arroza, postreko egindakoa, eta bestelako jakiak dastatzeko aukera eskaini zuten sukaldariak. Parte hartzaileen artean Maroko, Ekuador eta Valentzia jatorria duen koadrila irurtzundar bat zegoen. Bakoitzak bere sorterriko jaki bana prestatu zuen, lagun artean.

Goiza ilun esnatu zen, eta haien azpian aterpe hartu zuten txapa tailerrean parte hartu zutenak. Baina goizak aurrera egin ahala atertu eta eguzkia atera zen. Trikitilarien txanda izan zen orduan. Haiak alaitu zituzten sukaldarien jardunaren azken uneak. Baita plazara gerturatutako jende gutzia ere.



DOUNIA BERRAD

1. Maroko jaki berezi bat prestatu dut: seffa. Fideoak dira. Plater gozoa da, azukre hautsa eta kanela dituen. Fideoak lurrunetan egosten dira, azken momentuan gurina, azukre hautsa eta kanela botatzen zaie. Azkar prestatzen da. Zuendako postre itxura du, guretako plater bat da.
2. Festa bereziren bat dugunean prestatzen dugun plater bat da.
3. Koadrillarekin parte hartzen ari naiz. Gustatzen zait. Eta jendeak ikus dezan Marokon zer jaki desberdinak ditugun. Jendeak asko galdetu dit.
4. Bigarren aldia dut, oso ongi pasa dut.



CRISTINA TABI

1. Oilasko eta ganba zebitzea. Tipula morea, tomate, frijitutako tomate, limoia, laranja, zilandroa eta olio pixka bat du. Aurrena oilasko bularkia uretan prestatzen da, hoztean dadotan moztzen da. Ur berean ganbak prestatu. Hotz daudenean guztia nahastu. Erabilitako ura, salda, eta frijitutako tomate, olio eta zilandroa gehituko ditugu. Arroza, krispeta edo artoa xigortuarekin zerbitza daiteke.
2. Ni Otavalokoa naiz, mendikoa, eta produkturik lortu ezin izan dudanez, Ekuador kostaldeko jakia prestatu dut. Eguraldi onarekin, bihar munari aurre egiteko, oso ona da.
3. Bazter guztietako koadrila bat elkartu gara: espainiarrak, marokoarrak, ekuadortarrak. Egunerok elkarrekin gaude eta parte hartzea erabaki genuen. Bakoitzak sorterriko jaki bat prestatzea erabaki dugu. Lagun batek parte hartzea animatu gintuen. Aukera oso ona zen herrian gure burua ezagutarazteko, jendeak bestelako gastronomiak ezagutzeko, giro ederra sortzen delako erabaki dugu parte hartzea.
4. Joan zen urtean estreinakoa izan genuen. Eta esperientzia ona izan zenez, errepikatu dugu. Pozik.

1. Zer prestatu duzu?

2. Jaki hori jateko egun berezirik dago?

3. Zergatik parte hartu duzu?

4. Aurretik parte hartu izan duzu?



AMINA LAKHEL EL HARFAOUI

1. Kus-kusa prestatu dut, behikia, azenarioa, tipula, tomate, perrexila eta barazki pila bat gehiagorekin. Dena batera prestatzen da, baina antolatuta. Aurrena Kus-kusa jartzen dugu eltzean, ondoren haragia eta, azkenik, barazkiak. Prestatzen ordu eta erdi eman dut.
2. Marokon ostiraletan (egun garrantzitsua Islamean) denek prestatzen eta jaten dute kus-kusa. Mezkitetara errezatzen joaten dira eta etxera bueltan, familia guztia elkartzen da, eta elkarrekin jaten dute kus-kusa.
3. Jendeak jakin dezan kus-kusa nola prestatzen den. Jendeak ere galdetzen du nola egin dudana.
4. Beti parte hartzen dut.



RAMATTA DEN BALDE

1. Gambiako ohiko arroz bat prestatu dut: *maffe gerte* hots egiten da (*gerte* kakahuetea woloferaz). kakahuete krema, tomate, haragia eta barazkiak ditu. Horiekin salsa bat egiten da. Eta bestetik arroza prestatzen da. Saltsa arrozaren gainean jarrita zerbitzatzen da.
2. Gambian gehien bat arroza jaten dugu, ia egunerok. Irurtzunen ere, baina beti aldatzen dugu.
3. Parte hartzea gustatzen zait. Gambiako ohiko jakia prestatu dut eta harekin parte hartzea gustatzen zait, oso dibertigarria da. Gambia pixka bat ezagutarazteko.
4. Bai. Jendeak galdetzen du nola prestatu dudana eta azalpenak ematen dizkiet.



CONSTANCE NDIAYEA

1. Senegalgo jaki bat: arroza arrainarekin prestatu dut. Woloferaz thieboudienne izena du, arroza (*thiebou*) arrainarekin (*dienne*). Platera egiteko edozein arrain erabili daiteke: urrurua edo dorada, legatza... Arroza lurrunean egosi dut lehenik. Bestetik, arraina eta lekaleak egosi ditut, berezi, eta gero dena plateran batu dut.
2. Ez, Senegalen egunerok jaten da *thieboudienne*. Familia elkartu, eta bazkaltzera.
3. Hemen bizi naizenez, senegaldearra naizenez, Begoña Zestau Baraibarrek parte hartzeko gonbidapena egin zidan. Aurretik nire izebak parte hartzen zuen, gaur egun alabarekin Iruñean bizi dena. Senegaldar gisa hemen bakarrik nago parte hartzen, eta Senegaleko zerbait erakusten.
4. Hamargarren urtea da parte hartzen dudana. Bezperan haurren klaseko ama batzuk galdetu zidaten ea parte hartu behar nuen. Baietz esan nien. Etorri dira.



SORAIDA TERAN ALVARADO

1. Boliviako ohiko arroz bat, majadito hots egiten diogu. Abelburuaren haragi lehortua, piper gorriak eta berdeak, baratxuria, tipula eta haragiarekin prestatutako salda du. Baina hemen halako saldarik ez dudanez, oilo salda erabili dut. Aurrena haragia prestatzen dugu, ondoren barazkiak eta, azkenik, arroza. Majadittoa arrautza eta ondutako platanoko macho frijituarekin zerbitzatzen da.
2. Egunerok jan daitekeen plater bat da majadittoa. Ohiko plater bat da, eta ez zara jateaz aspertzen. Baina hemen noizean behin jateko luxua dugu. Bolivian bai, osagaiak eskura ditugunez, erraz asko presta dezakegu. Hemen baten bat opatzea kostatzen da.
3. Batez ere une eder bat pasatzeko, eta jendeak ere nire kultura ezagutu dezan, Boliviatik zerbait ezagutu dezaten: zer jaten dugun, nola eta abar. Jendeak prestatzeko moduz galdetu dit.
4. Bigarren aldia da parte hartu dudana. Espero dut gehiagotan parte hartzea.

Olatzagutiak haur eskola izan nahi du

Hala jakinarazi dio Hezkuntza Departamentuari eta hura eskolako eraikina aztertzen ari da orain. Udalak abeltzaintza azpiegituretan, basolanetan eta frontoian eginen ditu inbertsioak aurten

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA
Olatzagutiko Udalak Hezkuntza Departamentuari herrian haur eskola zabaltzeko interesa azaldu dio. Joseba Vizuete Askargortak esan duenez, "Hezkuntza Departamentuan haur eskola hartzeko ikastetxe publikoko zein den tokirik egokiena aztertzen ari da orain". Alkateak jakinarazi duenez, "Olatzagutiaren beharrak asetzeko haur eskolak bi unitate izanen lituzke".

Bestetik, eskolan berritze lan batzuk egiteko dirulaguntza eskatu zuen Olatzagutiko Udalak, "baina erreserban, hirugarrenak gelditu gara. Udalen batek bere laguntzari uko eginen balio, akaso aurteneginen genituzke lanak". Aurreikusitakoan artean daude: LED argia eta argiak pizteko pertsonen presentzia antzemateko detektagailuak jaretzea eta azpiegitura elektriko kableak eta koadroak aldatzea.

Aurrekontua

Olatzagutiko Udalak aurten 1.897.400 euroko diru sarrerak eta gastuak izanen ditu, joan zen urtean baino 479.593,80 euro gutxiago. Joseba Vizuete Askargorta alkateak diru sarreraren murrizketari egotzi dio jaitziera. Bide batez, gogorarazi du: "pandemiarekin eta Ukrainako ge-



Haurrak eskolako atean jolasten. ARTXIBOA

rrarekin zerga arauak kendu egin zituzten, baina berriro bueltan dira. Gastu muga ezarri dute. Udalek dirua izan arren ezin dute nahi bezala inbertitu".

Hala ere, udalak zenbait inbertsio egitekoa da. Abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko lanetarako 96.000 euro bideratu ditu, eta haietatik 36.000 Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin estaliko du. Diru horrekin, batetik, Birigarako harrobian 600 metroko luzera duen itxitura jarriko du,azienda amildu ez dadin. Bestetik, Urbasa etorbi-

dearen mendebaldera gelditzen diren dermioko bideetako batzuk, baita barga aldeko bat ere, konponduko ditu udalak. Horrekin batera, beheko basoan itxiturak eta bideak konpontzeko lanak eginen dira. 45.000 euroko aurrekontua eta 20.000 euroko dirulaguntza dute lan horiek.

Udal pilotalekuan ere zenbait hobekuntza lan egin dira. Joan den urtean ateak aldatu ondoren, aurten, dagoeneko, LED argiak jarri eta haiek piztu eta itzaltzeko pultsadorea jarri dute. Frontoian, azkenik, atea automatiko-

ki zabaldu eta ixteko tresneria jarriko du udalak. "Orain egun guztia dago zabalik. Automatismo hori jarrita, atea bera bakarrik zabaldu eta itxiko da. 08:00etatik 22:00etara egonen da zabalik frontoia", jakinarazi du. Bestalde, igerilekuko botikina tokiz aldatu du udalak. 2025ean aldagelak berrikotuko ditu.

Autobia

Iparaldeko Autobiaren (A-1) parean gerriratua izan zen otsailaren 27an. Nafarroako Gobernuak magala egonkortzeko lanak despeditu ditu jadanik. Egiteko horien artean Leire kaleko bi etxebizitza bota zituen foru administrazioak. Cementos Portland Valderrivas enpresarenak ziren eraikinak desjabetu egin zituen eta haiek zeuden lurrak Nafarroako Gobernuaren eskura pasa dira. "Han lurra zabaldu dute eta zuhaitzak landatuko dituzte", argitu du alkateak. Aldamenean enpresaren beste bi eraiki gelditzen dira, hutsik daudenak.

Gerriratzearen ondorioz, autobiako trafikoa bi egunez Olatzagutiko Inguraketa kaletik desbideratu zuen Nafarroako Gobernuak. Vizuetek azaldu duenez, "gobernuarekin akordioa egin genuen eta bi lan hartu ditu bere gain. Bata da, Inguraketa kaleko zoruak seinaleak eta marrak margotzea. Eta, bestea da kale horretan dauden bi zubien egoeraren azterketa egitea. Trafiko handia izan zen bi egunez eta zein egoeratan dauden jakin nahi dugu". Zubitako bat Goienkale eta Angel Gurmino kaleak errepide azpian dagoen zubia. Bestea, berriz, Bargatik jaisten den Larratxota erreka lurpera sartzean dagoen zubia, izen bereko kalearen parean dagoena.

Horren kontura izandako hartu-emanetan, gobernuak arduradunei kiroldegi ondoan aurreikusita dagoen errotondaz ere galdetu zieten olaztiarrek. Urbasa eta Inguraketa kaleetako trafikoa bideratuko luke errotonda horrek. "Proiektua eginda dute, baina, momentuz ez dutela eginen jakinarazi ziguten", azaldu du alkateak.

Kale zatia

Herriaren hegoaldean dauden Arronga plaza eta Kale Txikia lur sail batek banatzen ditu. Larraldi zerbitzuak (suhiltzaileak edo ambulantiak) batetik bestera azkar pasa ahal izateko kalea zabaltzea da udalaren asmoa. Horretarako, exekuzio unitatea egin beharko du. Lurjabeekin urbanizazioa nola egin adostu bitartean, behin behineko porlanezko zoruak pasa bat egin nahi luketela azaldu du alkateak.

Aurten ere parte hartze aurrekontuak izanen dira. Horretarako, 30.000 euroko diru poltsa izanen da. Aurreko urteetan aurrekontu hori bikoiztu edo hirukoizten zuten lanak proposatzen zirenez, aurten udalak, lehenik, proposamenak jasoko ditu eta aurrekontu horrekin egingarriak diren lanen artean aukeratzera emanen du. Vizente Argomaniz plaza eraberritzea parte hartze aurrekontuen bidez erabaki zen. Zorua aldatu ondoren, aulkiak eta lore ontziak etorkizunean jarriko dituztela esan du alkateak.

FRONTOIA 08:00ETATIK 22:00ETARA EGONGO DA ZABALIK. ATEA AUTOMATIKOKI ITXI ETA ZABALDUKO DA

xapatero
taberna
Etxeko kroketa
eta bokatak
948 460 162 · Etxarri Aranatz

Zure edari banatzailea!
Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 800 979 279 - GAITZAKI ARDUA 11 - ALTSASU

PORTUKO
ofidela
Dastatu gure Goxua!
Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

HARA ZER DIEN

Sakanako lexia konposatuak (V)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Hitz bakar batez baino gehiagoz osatutako lexiko mailako unitateak ditugula lexia konposatuak gogoratuko dut hasteko eta gaurkoan, lehen biek *ba-* aurrizki edo morfema daramate, aurreko artikularen azkenak, *bagaudela*, bezalaxe.

Ba-(egon^{+irag}), bada! Nahiko orokorra dugu honen erabilera. Egon aditza era sintetikoa eta iraganeko lehen pertsonekin erabiltzen da. "Pentsatzen nuen nik (guk...), esaten nion nik neure buruari..." horrelakoak adierazten ditu. Gertatu edo esan den zerbaitekiko adostasuna edo berrestea adierazteko erabiltzen da. Gaztelaniako "*¡Ya me parecía, ¡Ya decía yo que...!*" adierazten du": *Banengonan, ba, ni, ez yitzela etxien geldituko!* (Banengonan, bada, ni, ez hintzela etxean geldituko!). *Bagaundeban ez ote ziniñen azkenien fanen semie ikustia!* (Bageundean ez ote zineten azkenean joanen semea ikustera!).

Ba-(joan^{+ahal}) Aranzaten erabiltzen da bereziki. Aginte

edo desio txarraren zentzua hartzen du eta "joan hadi/zaitez"-en esanahiarekin erabiltzen da. Gaztelaniako "*¡Vete/váyase a la mierda!, ¡lárgate!*" esanahia dauka. *Bayueke zakurran ipurdie!* (Bahoake zakurraren ipurdira!). *Urde zikin ori, bazueke emendi agudo!* (Urde zikin hori, bazoazke hemendik agudo!)

Hurrengo laurak *bai/ez* adberbioekin sortutakoak dira.

Bai / Ez, antza! Sakana osoan izan dira erabiliak. Ziurtasunik gabeko baieztapena edo ezeztapena adierazten du. Dirudienez, omen, antza denez... partikularen parekoa dugu. Euskal Herriko mendebaldean *Bai, itxura! Ez, itxura!* erabiltzen da bereziki. Gaztelaniako "*Parece (ser) que sí/no*". *Egueldi ona ein ber deela iyendien! Bei, antza!* (Eguraldi ona egin behar duela igandean! Bai, antza!). *Ez tala geyoo agertuko emendi esan dik! Ez, antza!* (Ez dela gahiago agertuko hemendik esan dik! Ez, antza!).

Bai, ba! Horixe baietz/ezetz! Beste batek esaten

diguna berresteko edo begibistakoa dela adierazteko erabiltzen da. Jakina! Noski! Gaztelaniako "*¡Claro que sí/no!*" adierazten du. *Atzo busti ein nitzen. Bei, ba! Bustiko ez ziniñen, ba! Auriye zan da!* (Atzo busti egin nintzen. Bai, ba! Bustiko ez zinen, ba! Eurria zen eta!). *Oixe beyetz! Auripien yondu ziniñen da!* (Horixe baietz! Euripean egon zinen eta!).

Ba / ez ote? Erabilera orokorrekoa dugu hauxe. Benetan baietz/ezetz? Baieztapen edo ezeztapen bat zalantzan jarri nahi du-gunean erabiltzen dugu. Gaztelaniako "*¡Seguro (que sí/no)?*".

Podemos-ek politikari zikin guztiak salatu ta politikatik bota behar omen ditu... Ba ote? Ez ote da garais allatuko? (Ez ote da garaiz ailegatuko?).

Bai, txosneak! Lesnak saltsan! Buskantz erreak! Nafarroako euskal hizkera askotan erabiliak izan dira. Etxeko edozein otorduren aurretik norbaitek, haurra normalean, galdetzen zuenean ea zer zegoen jateko, bereziki jakinik ez zela izaten elikagaiak aldatzeko aukera handirik, esamolde hauxe erabiltzen zuen etxeko andreak erantzun moduan. Otorduetako osagaiei buruzko galdekietari lotzen zaizkio era zehatzean. Norbaitek, elikagai gutxi ziren garaian bereziki, «Zer dago bazkaltzeko?» edo «Zerbait gozoa egonen da bazkaltzeko, ez?» galdetu eta ohiko erantzuna izaten zen etxeko andreaken aldetik. Lehena, txosne, Mezkitzen erabiltzen da elizara eramateko ogi luzexka moduan. Eta OEHN *txozne* (G-goi-to, AN-larr, R-uzt; Lar), *txosne* (AN-larr; Lar, H), *txosna*. Guztietan ogi berezi moduan ageri da. Batean, '*mollete*'; hurrengoan, '*bollo*'; ondorengoan, '*pan francés*'; jarraian, '*pan muy delgado y alargado*'; beste batean, '*panecillo que se emplea como oblada, ofrecido en la iglesia durante el ofertorio, ordinariamente al final de la misa*' (V. de Urraúl Alto); geroxeago, '*pan pequeño de fabricación casera, en cuya masa echan granos de anís para darle aroma*' (Cuenca de Pamplona); ondoren, '*Pan de cuatro libras*' (Oroz Betelu);



honen atzetik, '*pan especial para el desayuno*' (Torres del Río); eta, azkenik, '*cierta especie de pan sin sobar*' (Larraga). «Buskantz» lexemak '*puska*' eta '*gantz*' osagaiak izan ditzake, odolki mota zen aspaldian. Gaztelaniako "*¡Ostias en vinagre!*" adierazten dute. Ondorengo esaldiak etxarrieran moldatuak dira: *-Ama, gaur zerbeit goixue izenen diau bazkaltzeko, ez? -Bei, txosniek!* (-Ama, gaur zerbait gozoa izanen dugu bazkaltzeko, ez? -Bai, txosneak!) *-Ama! Zer dakau gaur afaltzeko? -Buskantz erriek! Zer izanen yau, ba?* (-Ama! Zer daukagu gaur afaltzeko? -Buskantz erreak! Zer izanen diagu, ba?) *-Ama, zer dakau gaur bazkaltzeko? -Lesnak saltsan, seme! Edo Txosniek!* (-Ama, zer daukagu gaur bazkaltzeko? -Lesnak saltsan, seme! Txosneak!).

Hurrengo hirurak, aldiz, bat zenbatzaile zehaztuarekin sortuak dira.

Bat edoren bat(ek) Baten bat(ek), bat edo bat(ek), norbait(ek). Burundan *bateon*

bat. Izenordain gisa ageri da. Ondorengo Etxarri Aranazko esaldia dugu: *Guaño eztikeyet zein izaan dan, beye agertukuek batian bat*. (Oraino ez zakiat zein izanen den, baina agetuko duk bat edoren bat).

Bat heldu Nafarroako euskal hizkeretan erabilia. Bat etorri. Ados egon edo jarri. Nafarrera eta ekialdeko hizkeretan erabiltzen da, etorri aditza era sintetikoa erabiltzen ez den eremuetan. Gaztelaniaz, "*estar compinchado*" izanen litzateke. OEHN *bat etorri eta batera etorri baino ez. Kontus oiki, bat eldu ttuk ta!* (Kontuz horiekin, bat heldu dituk -zatozek- eta!).

Bateko urre atera/gertatu Sakanako euskal hizkeretan erabiltzen zen. Burundan *battiko urre*. Biren arteko lehian hirugarren batek etekina ateratzeari esaten zaio horrela. Karta jokoko "bateko urre"-tik dator. *Bizi guzie yamaten ye alkarreki peleyen ta en abogaduek gertatzen ttuk beti battakurre!* (Bizi guztia eramaten ditek elkarrekin pelean eta haien abokatuek gertatzen dituk beti bateko urre!).

DUELA 25 URTE...



Goitibeherak Zuarrarraten

3. Euskal Herriko Goitibehera Txapelketako proba bat hartu zuen Zuarrarrateko portuak. Hainbat tokitatik etorritako 14 goitibehera lehiatu ziren. Egun euritsua izan arren parte hartzaileak lehiatzeko prest agertu ziren. Antolatzaileek Juan Carlos irurtzundarrak egin-dako goitibehera zozketatu zuten. Antolakuntza aztoratuta ibili zen eskatuta zuten anbulantzia joan ez zelako eta hura gabe ezin zelako probarik jokatu. Lortu zuten hala ere.

Punk-rock doinuak terapia direnean

Nafarroako Esklerosi Anizkoitza elkartearen aldeko Elkar Mugi elkartasun jaialdia arrakastatsua izan zen

ALTSASU

Elkar Mugi elkartasun jaialdiko bihotz eta arima izan den Iker Baxerri "pozik" da esklerosi anizkoitzari ikusgarritasuna eman diotelako: "sare sozialen bidez taldeen eta gaitzari buruzko informazioa zabaldu dugu eta badirudi jendearengana

iritsi dela". Aldi berean, Baxerri "pozik" dago "herrian eta jaialdian bi egunetan sortu zen giro politarekin". Azaldu duenez, "Euskal Herriatik, Madrildik eta Kataluniatik jendea etorri zen. Zerbait berezia izan zen", gaineratu du. Jaialdia antolatzeko sei batzorde osatu zituzten: se-

gurtasuna, sarrerak, garbitasuna, azpiegiturak, barrak eta komunikazioa. "500 boluntario inguruk lan egin dute, altsasuarrek, sakandarrak eta Euskal Herrikoak", zehaztu du antolatzailerak.

Bestetik, Elkar Mugi elkartasun jaialdia punk-rock eszenak duen indarraren eta osasunaren adierazlea izan da. "Punkarenak elkartasun doinuak dira. Punk taldeak edozertan laguntzeko prest daude eta egonen dira", ziurtatu du Baxerri.



Musikariei jendetzaren aurrean jo zuten Elkar Mugi jaialdian.



Bakaikurrak tabernako ate parean, eguzkitan. ARTXIBOA

UEMA eta udalak udari begira jarri dira

Zerbitzu sektorean euskara areagotzeko 'Bertatik bertara' kanpaina abiaraziko dute

ARRUAZU / LAKUNTZA / ARBIZU / ETXARRI / BAKAIKU

Bosgarren aldiz, bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzeko kanpaina egingo dute uda honetan ere udalerrri euskaldunetan. Bertako hizkuntza ere kalitate eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia dela gogoratu nahi die kanpainak zerbitzu sektoreko arduradunei. Horretarako hainbat baliabide eskainiko dituzte Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, eta bertako kide diren udalak. Hainbat garapen agentziak ere egingo dute bat kanpainarekin, aurreko urteetan bezala. Hilaren 8tik iraila erdialdera izanen da kanpaina.

UEMAk Bertatik Bertara kanpainarekin bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskal-

dunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi dute aurten ere Bertatik Bertara kanpainaren sustatzaileek. Horretarako, bisitariendako eta zerbitzu sektoreko arduradunendako eta langileendako hainbat baliabide prestatu ditu, eta garagarriaren erdialdetik aurrera erabilgarri izango dira guztiak: udalen webguneetarako eta sare sozialetarako bannerrak eta testuak, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko mahai gainekoak (300.000 ale), zerbitzu sektoreko eragileei kanpainaren berri emateko baliabideak, eta bisitariak telefonoetan erabili ahal izateko hiztegia, besteak beste. Aurten, gainera, estreinakoz, turismo bulegoetan eta bisitariak hartzen dituzten ostatu, landetxe eta antzekoetan zabaltzeko diptikoak ere prestatu ditu UEMAK, euskaraz, katalanez, gaztelerez, frantsesez eta galizieraz. UEMAKo herrietako merkatariei eta ostalariei ekimenaren berri eman diete.




Gure ikasleen ahotan



Aitor Augusto (Altsasu)
Industria lidergo Ekintzailea eta
Berrikuntza (LEINN) graduako 1. Maila

egiten da hainbeste aldiz gauzak azaltzea. Hala ere esperientzia ona izaten ari da. Praktiarekin ikastea askoz motibagarriagoa da dena memoriaz ikasi behar izatea baino.

Zer da gehien gustatzen zaiuzuna Mondragon Unibertsitateak?
 Unibertsitatearen barnean dagoen sarea. Hainbeste herrialdetan ikaskideak izatea.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan, nola egiten da hori?
 Pausoz pauso gure aholkulariekin sortu genuen enpresa eta,aldi berean, horren atzetik dauden dokumentu eta paper guztiak nola kudeatzen diren ikasi dugu. Prozesua ez da zaila, zaila dena taldekide guztiak norabide berdinean lan egitea da.

Nolakoa da taldean lan egitea?
 Hasieran asko kostatzen da, azken finean bakoitzak bere esperientziak bizi dituelako LEIN-Nera heldu baino lehen, baina denborarekin geroz eta modu efizienteagoan egiten dugu lan,

"Oso esperientzia aberasgarria izan da lau asteko bidaia Berlinera"

Zergatik aukeratu zenuen LEINN ikastea?
 Ekintzailetzarekin zerikusia zuen zerbait ikasi nahi nuen, eta ate irekietara joan ondoren argi neukan LEINN zela aukerarik interesgarriena.

Nola ari da izaten LEINNeen bizitako esperientzia?
 Oso berezia, gradu oso ezberdina da eta askotan nekagarria

bakoitzak bere rola ulertzen taldearen barruan, eta rol horretatik hoberena eskaintzen.

Ze proiektutan ari zarete lanean LEINNeen barne?
 Proiektu asko ditugu momentuan, eta mota ezberdinetakoak, hala nola merkatu azterketak startup-entzat, skatea eta grafitia batzen dituzten ekitaldiak, egurrezko koadroak, eta abar.

Zer nolakoa izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?
 Berlinen egon gara lau astez. Oso esperientzia aberasgarria izan da, kontaktu, bizipen, eta proiektu askorekin bueltatu garelako. Gainera, talde bezala asko hobetu dugu gure eguneroko funtzionamenduan. Orain gogo askorekin hartu ditugu kurtso amaierako aste hauek, ikasitako guztia Euskal Herrian lurreratzeko.

Etorikizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?
 LEINNeke prozesua disfrutatu nahi dut, egunerokoa bizitzen, eta etorkizunean agertuko diren aukerak gogotsu hartuko ditut, nahiz eta oraindik ezin jakin ziur zer gertatuko den hemendik urte batzuetara.

www.mondragon.edu/prest

Izan giltzarri!



Patxi Bisquert Aktorea





**Kaixo Sakanako lagunok,
txori batek erran dit Guaixe
Fundazioak bazkideak behar
dituela eta badakizue,
bertako hedabideak
edukitzea oso garrantzitsua
dela guretzat fidagarriak
baitira guretzat.**

Egin zaitez mesedez, giltzarri!

Aupa zuek!

Aupa Sakana!

Aupa Euskal Herria!

Aupa Guaixe!



**guaixe.eus/
kideak**

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

UHARTE ARAKIL Tailerra.

Gazteendako Grafiti tailerra Iker Uriberekin.

17:00etatik 20:00etara, autobus geltokian.

ALTSASU Tailerra.

Emakumeendako kirol tailerra: Indar tailerra. Nafarroako Kirol eta Jarduera Fisikoko institutuak eta Altsasuko Udalak antolatuta.

17:00etatik 19:00etara, Zelandi kiroldegian.

ZIORDIA Tailerra.

Gutunak birramamari Yolanda Arrieta idazlearekin familia lantegia: Asaren istorioa bitarteko delarik, bizitzaren oinarriko gaiez mintzatzeko eta idazteko (jaiotzaz, bizitzaz eta heriotzaz) tailerra antolatu du Sakanako Mankomunitateak. LHko 3. mailatik gorako ume eta gurasoendako. Izena ematea: euskara1@sakana-mank.eus edo ziodialib@gmail.com. Bertaratutakoek liburuja jasoko dute opari.

18:00etatik 20:00etara, liburutegian.

HIRIBERRI Garagardo Dastaketa.

Xorta Pirinioetako garagardoa proiektuaren azalpena eta dastaketa. 18:30ean, elkartean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Etorkizunari so Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasle handien ikasturte amaierako dantzen emanaldia: euskal dantzaren oinarriak hartutako koreografia berriak. Sarrerak: euro bat.

19:00etan, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Irakurle taldea: Chimamanda Ngozi Adichie idazlearen La flor púrpura liburuaren ingurua ariko dira.

19:00etan, liburutegian.

BAKAIKU Bertso afaria.

Bertso afaria Xabat Illarregi eta Saats Karasatorrerekin. Bakaikuko Gazte Asanbladak antolatuta.

21:30ean, elkartean.

LAKUNTZA Jaialdia.

Biltoket: Jon Maraka, Aline Mrk, Morti eta Garate disko jartzaileen saioa.

23:00etan, Biltoki gaztetxean.

LARUNBATA 8

IZURDIAGA Mendi martxa.

AHT Zundaketen aurkako mendi martxa: Izurdiaga, Urritzola, Errotz eta Izurdiaga. STOP AHT Zundaketak Ekimenak antolatuta.

09:30 Irteera, kontzeju etxetik.

13:30 Amaiera. Ondoren, bazkaria, kontzeju etxean.

ALTSASU Gimnasia erritmikoa.

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko ikasleen ikasturte amaierako erakustaldia.

10:45ean, Zelandi kiroldegian.

UHARTE Arakil Festa.

San Miguel eskolako ikasturte bukaerako jaia.

11:00-12:30 Kamisetak salgai.

11:00 Txapa eta pankarta tailerra.

12:30 Erraldoi eta gaiteroekin kalejira.

14:00 Talde argazkia, iturrian.

14:30 Bazkaria.

15:30 Bingo eta jolas kooperatiboak.

LAKUNTZA Festa.

Lakuntzako Herri Eskolako festa

11:00 Herri kirolak: ikasle, irakasle eta familien arteko lehia.

11:30 Entzierro txikia: eraman zezentxo, prestatu egunkaria eta korrika egiteko prestatu.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Ooh la la! gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Igandea 9: 19:30

Blondi, Zinemaren eta Emakumeen 38. Nazioarteko Erakusketaren barruan. Astelehena 10: 19:00

- 12:00 Tailerrak eta jolasak: Aurpegiak eta azkazalak margotu, txapak, henna... Sakanako Eskola Publikoaren pankarta margotuko dute ere.
- 13:15 Talde argazkia, eskolako atariko eskaileretan. Ondoren, Zarata txarangarekin kalejira. Norberaren erraldoiak eta buruhandiak eramateko deia luzatu dute.
- 14:30 Bazkaria, eskolako frontoian. Ondoren, postre dastaketa eta Bingo Musikatua (sariak egonen dira).
- 16:00 Puzgarriak, Atracciones Sanzen eskutik, frontoian.
- 18:00 Musika eta auzatea, plazan.
- 20:30 Zezensuzkoa.

ALTSASU Festa.

Zelandi GEKO festa.

11:00-13:00 Jolasak, henna, txapa tailerrak eta sarien zozketa.

11:00-14:00 Puzgarriak.

Kamiseten salmenta.

13:00 Ekitaldia.

14:00 Haurren bazkaria.

14:30 Helduen bazkaria.

17:00-19:00 DJ Xaibor.

OLATZAGUTIA Festa.

Iñigo Aritza Ikastolaren eguna.

11:30-12:30 Jolasak.



UTZITAKO

ALTSASU Koldo Arnanz arte tailerrek ikasleek 2023-2024 ikasturtean egindako lanen erakusketa.

Maiatzaren 31tik ekainaren 15era arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



UTZITAKO

ETXARRI ARANATZ Indusen ibilbideak Himalaiatik Karatxira. Pakistan, begirada sozial bat erakusketa. Ekainaren 11tik 23ra. Liburutegian.

- 12:30-13:00 Ginkana.
- 13:30-13:30 Aritza Kantuz.
- 13:30-14:00 Buruhandiak.
- 14:00 DBH4. mailako ikasleei agur ekitaldia.
- 14:30 Bazkaria.
- 15:30-16:00 Ipuin kontaketa.
- 16:00-17:00 Aritza Dantzan.
- 17:00-18:00 DJ Txori.

URDIAIN Jardunaldia.

Gazteok lurraren defentsan makroproiektuen aurkako jardunaldia, Sakanako, Lautadako eta Goierriko Ernaik antolatuta.

15:00 Bazkaria, plazan.

17:30 Hitzaldia: Krisi ekosoziala Euskal Herrian eta AHTa Sakanan. Proiektua eta alternatiba, Jokin Bergara eta Sakanako Trenaren Aldeko Plataformako

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

Gorka eta Arkaitzekin, gaztetxean.

19:30 Kontzentrazioa, plazan.

20:30 Joxek Farra bakarlaría, gaztetxean.

21:30 Bokata, gaztetxean.

22:00 Kontzertuak: Bulkada eta DJ Etxekoi, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Boxeo.

Boxeo belada.

18:00etan, Euskalerríari frontoian.

IRURTZUN Urteurrena.

Pikuxarren XXI. Urteurren ospakizuna.

19:00 Garagardo dastaketa eta pikoteoa, elkartean.

20:30 Makusai taldearen kontzertua, Pikuxar plazan.

22:00 DJ musika, tabernan.

ALTSASU Kontzertua.

Trasteando eta Castro-Urdialesko Al Sajo rondalla taldeen kontzertua.

Sarrerak: 6 euro.

19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 9

LAKUNTZA Mendi lasterketa.

Lakuntza-Aralar Mendi lasterketa: lasterketa motza, 13,3 km eta 640 metro desnibel; lasterketa luzea, 26 km eta 1.200 metro desnibel. Nafarroako Kluben arteko txapelketa erabakiko da. Zabalarte klubak antolatuta.

08:30 Lasterketa motza, ibilbidearen kontrako norantzan.

09:30 Lasterketa luzea.

ALTSASU BTT Zeharkaldia.

27. Altsasu BTT Zeharkaldia: ibilbide luzea, 55 km eta 1.180 metro desnibela; tarteko ibilbidea, 43 kilometro eta 630 metro desnibela. Barranka Txirindularitza Taldeak antolatuta.

09:00etan, lortia zabalgunean.

ARRUAZU Kontzertua.

Elortz Haraneko Abesbatzaren kontzertua, Nafarroako Abesbatzen Elkartearen Gogo bete kantuz zikloaren barruan.

11:00etan, elizan.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Etxarri Aranazko Musika Eskolako ikasleen ikasurte amaierako kontzertua.

12:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Erakusketa.

Etxarri Aranazko artisten lanen erakustaldia.

12:00etatik 14:00etara, plazan.

EGIARRETA Errezitala.

Inma Biurun poetaren eta Adyta Valdes pianojolearen Piano eta olerkigintza errezitala, Arakilgo Udalak antolatuta.

19:00etan, Itxasperrin.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ETXARRI ARANATZ Erakustaldia

Zirko tailerreko ikasleen erakustaldia.

17:00etan, kultur etxean.

ASTEARTEA 11

LAKUNTZA Kontzertua

San Saastin Musika Eskolako ikasleen ikasurte bukaerako kontzertua.

18:00etan, kultur etxean.

ASTEAZKENA 12

LAKUNTZA Batzarra.

Lakuntzako festa batzordearen bigarren bilera.

19:00etan, udaletxea.

OSTEGUNA 13

ALTSASU Ipuin kontaketa.

Mixel Elortzaren *Barruan duguna* eta *Eki Libe eta urrezko ezkurra* ipuinen kontaketa.

18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTIRALA 14

ALTSASU Tailerra.

Emakumeendako kirol tailerra: Defentsa pertsonala. Nafarroako Kirol eta Jarduera Fisikoko institutuak eta Altsasuko Udalak antolatuta.

17:00etatik 19:00etara, Zelandi kiroldegian.

IRURTZUN Hitzaldia.

Pernakulturaren hastapenak.

18:00etan, liburutegian.

FESTAK

ETXARRI ARANATZ

EKAINAK 13 Osteguna SAN KIRIKO EGUNA

18:45 Udaletxetik Andra Mari ermitara kalejira.

19:00 Aurreskua, ermitan.

20:30 Kintoen dantzakia, ermitan. Ondoren, kalejira herrira.

20:30-23:00 / 00:00-02:00 Dantzaldia, plazan.



ARTXIBOA

Zorion agurra
Maite duzunari

zorion@guaxe.eus

ESKELA

Patxi Beramendi Espinosa

Mendigoizale taldeko juntak zure lana eskertzen dizu

Altsasuko mendigoizaleak

ESKELA

Patxi Beramendi Espinosa

Beti gurekin egongo zara

Jan da lo

Zure kuadrila

ESKELA

Emilio Boulandier Maiza

—Goian bego—

(Altsasuko alkatea 1983-1987 eta 1987-1991 legealdietan)

Altsasuko Udalak une latz hauetan familiarekin eta hurbilekoekin bat egiten du

Altsasuko Udala

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 €/106,5 €/143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

Udan Urdiaingo igerilekuak eta taberna hartuko dituen jende bila gabiltza
Interesa baduzu idatzi: aitziberelkarte@gmail.com.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Mank-ek Ur Zerbitzuan ofizial lanpostua betetzeko la poltsa osatu nahi du: Oposizio lehiaketa bidez egingo da. Bete beharreko eskakizunak www.sakana-mank.eus web orrian ditu. Oposaketan izena emateko epea ekainaren 18an amaizten da.

Lakuntzako Udalak begiraleak kontratatu nahi ditu udako aisialdi eskaintzarako: Begirale izan nahi duenak ekainaren 11ra arte du epea eskabidea aurkezteko. Horrekin batera curriculum, jolasgunearen antolaketa eta ekintza proposamenarekin aurkeztu behar dira. Informazio gehiago www.lakuntza.eus web orrian.

Olaztiko igerilekuetarako hiru langile behar dira: Ateazaintza eta garbiketara lanak egiteko hiru hilabetez lanaldi osoko kontratokoekin. Interes duenak enplegu eskatzailer gisa inskribaturik eta Euskara maila B2 izatea eskatzen da. Deialdiari buruzko informazio guztia www.olazti.com web orrian.

Arakilgo Udalak aisialdiko begiraleen lan

poltsa osatu nahi du: Eskabideak eta Curriculumak ekainaren 12ra arte aurkez daitezke. Deialdiari buruzko informazio gehiago nahi duenak udalxetetik pasa dadila edota arakilkultura@gmail.com helbidera idatzi dezala, edo 634 584 226 - 948 500 101 telefonoetara dei dezala.

IKASTAROAK

Surf ikastaroa Zarautzen Sakanako Mankomunitatearen eskutik: Ikastaroa ekainaren 15ean eta 16an izango da, autobus zerbitzua egongo da. Hastapen ikastaroa da. Izena eman nahi duenak Mank-eko kirol zerbitzura dei dezala 948 464 866.

Sakanako Mankomunitateko udako kirol campusetan izena ematea zabalik: Futbol kampaia Uharte Arakilen izango da bi txandatan: 2012,2013 eta 2014 urteetan jaiotako neska mutikoen artean 25etik 29ra bitartean eta 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotako neska mutikoen artean 5era, bi txandak goizeko 10:00etatik 13:00etara ordutegiarekin. Prezioa 35 eurokoa izango da kirolak@sakana-mank.eus

helbidera idatziz edo 683 343 854 telefonora deituz. Triatloi campusa uztaillaren 8tik 19ra izango da, Arbizuko kiroldegian, 10:00etatik 12:30era. Honen prezioa 40 euro izango da eta izena emateko epea uztaillaren 2an amaizten da.

LEHIAKETAK

Olaztiko Santa Ana festak iragartzeko kartel lehiaketa: Bertan testu hau agertu beharko da Santa Ana 2024. Olazti. Uztaillaren 25etik 28ra. Lanak erregistro elektronikoki bidez edo udalxetean aurkez daitezke ekainaren 17ko 14:00ak baino lehen. Sariak egonen dira, oinarriak eta informazio gehiago Olaztiko Udalean edo www.olazti.eus web orrian.

Altsasuko festetako kartel lehiaketa 2024: Festetako programan azala (helduen modalitateko irabazlearena) eta kontrazala (haurren modalitateko irabazlearena) aukeratuko dira. Lanak ekainaren 17ko 14:00ak baino lehen lortia Kultur Gunean aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago www.altsasu.net eta lortia kultur gunean.

OHARRAK

Lakuntzako musika eskolan izena ematea zabalik: Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian. Ekainaren 19ra arte eman daitezke izena.

Ergoien haurrentako aisialdi kanpalekuan

izena emateko epea zabalik: Hiru eta hamalau urte arteko haurrei zuzendua, 09:00etatik 14:00etara ordutegi malguarekin. Informazio gehiago eta izen emate orria www.ergoiena.eus web orrian. Garagarriaren 12ra arte eman daitezke izena.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniako klaseak emateko astean behin edo bitan eta haurrekin jolas jarduerak egiteko. Astean bitan litzateke, uztailla eta abuztuan. Gurutze Gorriaren harremanetan jar zitezke corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldetxarriaranaz.com web orrian.

Uharteko Arakilen haurrentako udako ludotekaren izena ematea zabalik: Uztaillaren 1etik 24ra izango da, 09:00etatik 13:00etara. Kostua 200 eurokoa izango da (izena ematen duten haurren arabera alda daitezke). Izena ematea Uharte Arakilgo Udalxetean edo 948 464 036 telefonora deituz.

Lakuntzan haurrentako udako kanpamenduan izena ematea zabalik: Garagarriaren 24tik gailaren 26ra izanen da, 9:30tik 13:30era. Izena ematea garagarriaren 12ra arte eman daitezke www.lakuntza.eus web orrian.

Arbizuko pilota eskola: Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 7ra arte, izena udalxetean bertan eman daitezke.

Arakilgo euskalkiari buruzko liburua eskuragarri: Aitor Aranak eta Koldo Colomok idatzitako *Nafarroako Euskalkiak*. *Arakilgo aldaera* liburua-aren ale batzuk ditu Arakilgo Udalak eta doan emanen dizkio interes duenari, horretarako 634 584 226 telefonora dei dezala.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure ahotsa behar du: 6-15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interesa duenak harremanetan jar dadila corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldetxarriaranaz.com web orrian.

Baduzu zerbaite konpontzeko? Ekarr garbigunera eta konpontzen saiatuko gara. Altsasuko garbiguneari ekaikoa asteazkenetan eta Arbizuko garbiguneari ekaikoa ostiraletan, bitan 11:00etatik 13:00era. Mankomunitateak eskeinitako zerbitzua.

Autopista elektrokorrik ez plataforma: Udaberriaren zehar saldutako Alarma Gorria kanpainako boletoen zozketan Bakalkun saldutako 2106 zenbakia saridun suertatu da.

Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisakoetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan

zen urteko azaroaren 1etik aurtengo abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitore edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzak kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskaraz Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia [sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) webgunean.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba marxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpen ekonomikoak egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabiltza dirua eman.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Pei Wen Wu**, maiatzaren 28an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Ioseba Bergera Aramendia eta Leire Diez de Ulzurrun Muruzabal**, ekainaren 1ean Ziordian.
- **Gema Martinez Arocas eta Iosu Gonzalez Erro**, ekainaren 3an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Julia Fernandez Sanchez**, maiatzaren 31n Altsasun.
- **Patxi Beramendi Espinosa**, ekainaren 2an Altsasun.
- **Emilio Boulandier Maiza**, ekainaren 4an Altsasun.
- **Esteban Aiestaran Larrañaga**, ekainaren 4an Bakaikun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Txapeldun bat, eta lau saritu

TXIRRINDULARITZA Iker Gomezek junior mailako Nafarroako Erlojupeko Txapelketa irabazi zuen, Adrian Martinez afizionatuen txapeldunordea izan zen, Luca Martinez kadeteen txapeldunordea, eta Ekain Imaz eta Erik Laiglesia podiumean hirugarrenak

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Txirrindulari sakandarrek se-kulako maila eman zuten ekainaren 2an Vianan jokaturako Nafarroako Erlojupeko Txapelketa.

Lehiatzen lehenak 23 urtez azpiko eta elite mailako afizionatuak izan ziren. 20,5 km ziztuzten aurretik. Gizonetan, Ibai Azanza (Finisher) izan zen azkarrena eta Nafarroako txapelduna (26:56). 37 segundo gehiago behar izan zituen Adrian Martinez lakuntzarrak (Laboral Kutxa). Emakumezkoetan, Carlota Perurena (Vipeq Team) gailendu zen, eta Nahia Imaz altsasuarrak (Team Zatika Bike) ezin izan zuen proba bukatu.

Junior mailakoek 15,7 km-ko distantzia osatu zuten. Gizonezkoetan, Iker Gomez altsasuarraren (Quesos Albeniz) eta Iker Villarren (Robert Innova) artean erabaki zen txapelketa, eta altsasuarrak beste garaipen bat bildu zuen bere zakura, azkarrena izan baitzen (20:21), Villarri 4 segundo aterata. Ekain Imaz altsasuarra (GT Tolosa) hirugarren sailkatu zen, 52 segundora. Emakumezkoetan, Paula Ostizek (Baque Team) ez zuen areririk izan (22:41). 2:46 minutu atera zizkion Marta Pelayori (Ecologicos Navarra-Beratxa). Lehen sakandarra Ane Beltran de Heredia altsasuarra izan zen (Timac Agro-Lacturale). Podiumera igotzear egon zen, laugarrena izan baitzen, 3:18ra.

Azkenik, kadeteetan ordezkaritza zabala izan genuen. 8,7 km-ko gizezkoen erlojupekoa estu-estu izan zen, baina azkenean Joanes Olaizola (Zu eta Biok) gailendu zen (12:37) Luca Martinez lakuntzarraren aurretik (Sakana Group-Alea), biak denbora berean. Hirugarren



Iker Gomez, Nafarroako junior txapelduna, Iker Villar eta Ekain Imazekin. FEDERAZIOA


Erik Laiglesia sailkatu zen (Sakana Group-Alea), 25 segundora. Emakumezkoetan, Sofia Azanza (Izozmendi Team) izan zen txapelduna (15:19).

Bezperan juniorrak Galarren

Erlojupeko Txapelketaren bezperan, Galarrek XIX. Miguel Uriz Oroimenezkoa hartu zuen, aldi berean Nafarroako Iraupenezko Txirrindularitza Txapelketa izan zena. Lasterketa borrokatuan Xabi Sasco (Iparralde) gailendu zen (2:17:33), Iker Villarren (Robert Innova) aurretik (2:17:43). Villar da Nafarroako txapelduna. Eñaut Oiarbide laugarren sailkatu zen, hirugarren nafarra (2:18:07). Ekain Imaz zortzigarren sailkatu zen, Iker Gomez hamargarren (mendiko sailkapena irabazi zuen), Ekaitz Perez 22., Iker Begiristain 25. eta Mikel Viloria 30.



Adrian Martinez, afizionatuetan bigarrena.



Kadeteak, Luca Martinez eta Erik Laiglesia.

Sakandarrak

Nafarroako Erlojupekoa

Afizionatuak

• Gizonak	
1. Ibai Azanza	26:56
2. Adrian Martinez	37ra
7. Marxel Etxeberria	1:43ra
10. Aitor Ondarra	2:09ra

• Emakumeak

1. Carlota Perurena	34:02
Nahia Imazek ez zuen bukatu	

Juniorrak

• Gizonak

1. Iker Gomez	20:21
3. Ekain Imaz	52ra
5. Ekaitz Perez	1:42ra
7. Eñaut Oiarbide	2:43ra
19. Iker Begiristain	3:25era

• Emakumeak

1. Paula Ostiz	22:41
4. Ane Beltran de Heredia	3:18ra
5. Ane Berastegi	4:04ra
7. Siets Goikoetxea	4:59ra
10. June Etxeberria	6:23ra

Kadeteak

• Gizonak

1. Joanes Olaizola	12:37
2. Luca Martinez	

denbora berean

3. Erik Laiglesia	25ra
5. Ekai Erdozia	27ra
12. Mikel Arrizabalaga	1:13ra
13. Janitz Zufiaurre	1:16ra
14. Unax Etxeberria	1:17ra
20. Ion Unai Gonzalez	1:28ra
21. Manex Huarte	1:30era
22. Unai Gomez	1:32ra
23. Xabier Curiel	1:33ra
26. Asier Flores	1:42ra
27. Gabriel Gonzalez	1:50ra
28. Oier Olaberria	1:51ra
31. Juan C. Gil de Gomez	1:51ra
32. Urko Oiarbide	1:53ra
36. Ibai Galarza	2:03ra
42. Alex Gonzalez	2:42ra

• Emakumeak

1. Sofia Azanza	15:19
-----------------	-------

Ane Beltran de Heredia, podiumean

Ane Beltran de Heredia Fernandez altsasuarra (Timac Agro-Lacturale) gutxigatik ez zen igo Nafarroako Erlojupeko juniorren podiumera, laugarren sailkatu baitzen, baina maiatzean Emakumezkoen Euskaldun Txapelketarako puntuagarriak ziren bi probatan hirugarren sailkatu zen.

Maiatzaren 18an Laudioiko lasterketan hirugarren juniorra izan zen, eta maiatzaren 24an jokaturako Bergara Hiria VII. San Martzial Igoeran hirugarren sartu zen, Maier Olanoren (Zu-k Limousin) eta Irati Arangurenen (Andoain) atzetik. Ane Berastegi (Beratxa) laugarren sailkatu zen, eta Siets Goikoetxea (Beratxa) bederatzigarren.



Ane Beltran de Heredia, eskuinean, Bergarako podiumean. UTZITAKOIA

Etxarrik ez du erantzunik jaso, baina igoera fasetik kanpo dago

FUTBOLA Erregional faseko igoera faseak aurrera darrai, baina Etxarri jokatu gabe eta erantzunik gabe dago

M.B.G. SAKANA

Erregional mailako igoera faseko kulebroiak aurrera darrai. Erredakzio hau ixterakoan, Etxarri Aranatz futbol taldeak ez zuen oraindik Nafarroako Futbol Federazioaren erantzunik jaso, eta dagoeneko ia bi aste pasa dira.

Erregional mailako igoera faseko itzulerako partidari, Beriainen kontra, lehen zatia despeditzerakoan Etxarri Aranatzek bere jokalariei bati egindako irain arrazistak salatu zituen. Talde etxarriarrak, bere jokalariekin elkartzasunez, bigarren zatian ez ateratzea erabaki zuen. Hala jakinarazi zioten arbitroari, baina hark partidako aktan ez zuen halakorik jaso. Etxarrik gertakariak Foruzainetan salatu zituen eta Nafarroako Futbol Federazioari arrazakeriaren kontrako protokoloa zein den galdetu zion, "Beriainen arbitroek eta federazioiko kide batek ez zutelako inolako jarduketa protokolorik martxan jarri". Beriainek Etxarri Aranatzek egindako irain arrazisten salaketa ukatu zuen. Lehen zatian 2-0 irabazten ari zen Beriainen, eta federazioak emaitza hori jaso zuen.

Bi aste pasata, Etxarri Aranatzek ez du federaziotik inolako erantzunik jaso. "Ez digute oraindik ezer esan". Bien bitartean erregionalerako igoera faseak aurrera jarraitu du. Etxarri Aranatz, nahiz eta Beriainen kontrako partida galdu, igoera fasean jarraitzea zegokion, baina praktikan ez dute talde sakanarra partida deialdietan konbokatatu.

Egoera oso berezia da. Federazioak Etxarri Aranatz kaleratzea erabakiko balu, erabaki horren berri eman behar lioke klubari, eta San Donato futbol zelaiko klubean ez dute inolako jakinarazpenik jaso. Ea datozen egunotan mugimendurik dagoen.

Bitartean, Erregionalerako igoera fasean sailkatu gabe geratu zen Lagun Arteak Erregionalen segiko du datorren denboraldian. Inork gutxi espero ez zuen bidai-deia izango du: Altsasu. Preferentia igo eta bertan soilik bi denboraldi egin eta gero jaitsi da talde altsasuarra Erregionalera, pena handiz. Etxarri Aranatzekin gertatzen denaren esperoan, datorren denboraldian hiru taldeak maila berean elkarrekin lehiatzea gerta daiteke.

Futbol txapeldunak



Kadeteen Altsasu A taldea, mailaz igo izana ospatzen. UTZITAKOIA

Altsasu kadeteak A, lehen mailara Bigarren kadeteen mailako Altsasu A taldeak igoera fasean Asdefor eta Itaroa Huarte mendean hartu eta gero, mailaz igotzea lortu du.



BGA taldeak azken segundotan irabazi zion BSK taldeari.

BGA eta Futboleroak, txapeldunak Korazonistetako Futsal torneoan, LH5-LH6 mailako finalean Futboleroak taldeak Sutegi mendean hartu zuen, eta DBH1-DBH2 mailan BGA taldeak BSK.



LAGUN ARTEA KIROL ELKARTEA

Lagun Arteak, merezitako atsedena

FUTBOLA Lakuntzako Lagun Artea Kirol Elkarteak denboraldi bukaerako topaketa egin zuen maiatza bukaeran Zelai Berri futbol zelaian. Erregional mailako talde nagusia izan ezazik, gainontzeko taldeak bildu ziren. Futbolera jokatu, talde argazkiak atera, eta eguna borobiltzeko merendu ederrarekin agurtu zuten denboraldia.

Kimuen bigarren urteko Lagun Arte A taldeak Iruñea Guneko bosgarren multzoko liga irabazi du, denboraldi ederra eginda. Jubenilen mailan, aldiz, joan zen denboraldian lehen mailara igo zen Lagun Arte, baina liga despeditzeko jardunaldi baten faltan (larunbatean, 11:00etan, Itxesaldan, San Jorgeren kontra), sailkapenean azkena da, eta kategorian galduko du.

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Hirugarren mailako areto futbol txapelketan jokatzeko duen Aralar Mendi taldearendako despeditu da denboraldia. Ligan hamabi talderen artean zazpigarren sailkatu zen Uharre Arakilgo taldea, eta kopan ikusgarri aritu da, bigarren urtez jarraian Lauko Finalerako sailkatu baitzen, hasierako faseko partida guztiak irabazi eta gero. Tamalez, ekainaren 1ean GCH Garbayo Chivite Cintruenigo taldearen kontra Erriberan jokatuako finalean, oso gutxiagatik, baina kopan ihes egin zuten, bigarren urtez jarraian. **Hirugarren mailako kopako Lauko Finalean, finalerdietan San Juan izan zenuten aurkari. 4-0 irabazi zenioten, alde handiz.**

Konfiantza handiarekin joan ginen Cintruenigora Lauko Finala jokatzera, kopan gure ibilbidea oso ona izan delako. Hasi faserako faseko partida guztiak irabazi genituen. Bagenekien partida zaila izango zela, San Juan talde ona delako eta asko exijitzen duelako, baina gure aukerak izango genituela. Eta horrela izan zen. Berez, partida estua izan zen, baina ongi hasi ginen, berehala sartu genuen lehen gola. Atsedendira 3-0ko errentarekin joan ginen. Bigarren zatian beraiek asko estutu gintuzten. Atezain-jokalariei formula erabili zuten bigarren zati ia osoan, kantxan nagusitasuna izateko, eta erasoan hasi ziren. Sufritu genuen, baina gure atezaina ongi aritu zen, gure defentsa ere ona izan zen, ongi kokatuta geunden zelaian, eta azkenean garaipena lortu genuen, 4-0. Oso ongi eutsi genion. Ez zen partida erraza izan, baina partida ona egin genuen, eta guretako izan zen.

Beste finalerdian hiruna berdindu zuten etxeko galdeak, Cintruenigoko GCH Garbayo Chivitek eta Hirugarren mailako liga irabazi duen Kirol Sportek. Penaltietan, etxeko taldeak egin zuen aurrera.

Euren partida ikusi genuen. Cintruenigo 3-1 jarri zen aurretik, baina Kirol Sportek, atezain-jokalariekin, hiruna berdindu zuen eta finalista penaltietan erabaki zen. Cintruenigo finago aritu zen (4-1).

Finala etxeko taldearen kontra jokatu zenuten, eta jakina da Erriberako zaleek kantxan asko estutzen dutela.

Izugarri. Hein batean, sarekada bat bezalakoa izan zen. Euren



Uharte Arakilgo Aralar Mendi, Kopako finalean, zaleekin batera. ARALAR MENDI

"Kopa irabazi ez izanaren arantzarekin noa, baina pozik"

MIKEL HERMOSO DE MENDOZA SAINZ ARALAR MENDIKO KAPITAINA

ARETO FUTBOLA Aralar Mendik Hirugarren mailako kopako finala galdu zuen. Bere azken partida jokatu zuen Mikel Hermoso de Mendoza kapitainak, eta pena horrekin doa

etxean jokatu genuen, euren zelaian, eta alde horretatik dena zuten alde; gainera, kiroldegia lepo zegoen eurak animatzen. Gure jarraitzaile batzuk ere joan ziren, baina eurenak ziren nagusi. Eragile horiek guztiek ez ziguten moralki asko baldintzatu, baina beraiei agian plus bat gehiago eman zien horrek. Gure finalaurrekoa ez zen oso gogorra izan, errotazio asko egin genituen eta garaipena lortu; iaz, esaterako, finalera hilda iritsi ginen, baina aurrean, alde horretatik, oso ongi heldu ginen. Cintruenigokoek finalerdi gogorragoa izan zuten, baina euren etxean zeuden, bere jendearekin, eta hori euren alde plus bat izan zen.

Nolakoa izan zen finala?

Oso estua. Eurak hasi ziren irabazten, baina bana berdindu genuen eta hala joan ginen atsedendira. Sentsazio onak genituen; partida oso gogorra zen, estua, baina gu partidan sartuta egon ginen, nahiz eta giroa kontra izan. Finala oso berdindu izan zen, baina bigarren zatian 2-1 aurreratu ziren; guk berdintzeko aukerak izan genituen,

**"LIGAN IRREGULAR
IZAN GARA APIRILERA
ARTE, BAINA ORDUTIK
AURRERA, KOPAN
BEREZIKI, IKUSGARRI"**

baina ez genuen lortu, eta finala galdu egin genuen. Oso gutxiatik ihes egin zigun kopak, baina aurrean berriz ere kale.

Ze pena...

Pena handia eman zigun, oraindik penaz jarraitzen dugu, eta luze jarraituko du. Izan ere, kopa horren gertu ikusten duzunean... eskutan izan genuen. Aurrean sekulako kopa txapelketa egin dugu; partida guztiak oso ongi irabazita atera ditugu aurrera, eta taldea oso ongi aritu da. Azken bi hilabeteetan talde guztiei aurre egin diegu, eta gure taldeak ikaragarri lehia-tu du. Finala irabazteko moduko partida egin genuen; behintzat, ez galtzekoa. Beraz, pena handia da, hor izan genuelako.

Hirugarren mailan jokatu duzun taldeen artean herri txikiak eta klub txikiak zarete, baliabide gutxiak duzun kluba. Beraz, ligari eusteak eta bi urtez jarraian kopako final handira heltzeak meritu handia du.

Kopan ongi aritu gara, baina ligan oso irregularrak izan gara. Nire ustez goian egoteko moduko taldea dugu, ez dakit lehenengo bi edo hiruen artean egoteko, baina bai behintzat euren atzean egoteko modukoa, baina hasieran, bereziki ez ginen batera fin ibili. Bost edo sei partida jarraian galdu genituen, aurreko denboraldian bezala. Izan ere, azken bi denboraldiak oso antzekoak izan dira. Martxora edo apirilera arte ez dugu liga lehiatzea lortu. Etxean partida asko galdu ditugu, kanpoan irabazi ditugu gehiago; hori oso arraroa da gure taldean, Uharten beti indartsu egon garelako, baina aurrean ez dugu hori lortu. Egin dugun ligarekin ez gaude oso kontentu, baina gero egin dugun koparekin, ordea, oso pozik gaude.

Behetik gora egin duzue.

Bai, liga ez dugu oso ongi bukatu, ez ditugu sentsazio onak izan. Baina koparekin denboraldiari ginga polita jartzea lortu dugu. **Orain merezitako atsedendia hartuko duzue, baina nola aurreikusten duzue datorren denboraldia? Bloke sendoa duzue, baina bajak eta aldaketak aurreikusten dituzue?**

**"TALDEKIDEEI ESKATU
DIET TALDEA ZAINTEKO,
UHARTEN DUGUN
GAUZA HOBERENETAKO
BAT DELAKO"**

Hasteko, nik areto futbola utziko dut. Ekainaren leko finala izan zen nire azkeneko partida. Gai-nontzekoek ziur jarraituko dutela. Bloke sendo bat osatzea lortu dugu, aurrean 13-14 fitxa egin ditugu, eta nahiz eta oraindik ez diren hitz egiten hasi, esango nuke %95ean aurrera segiko dutela.

Zergatik hartu duzu taldea uzteko erabakia? Adina, sasoa...

Denetatik pixka bat. 16 urterekin hasi nintzen jokatzeko eta orain 32 dauzkat. Lehen nire kuadrillako jende askok jokatu zuten taldean, eta orain ez du inork jokatu. Gazte asko daude, liga exigentea da, eta martxa jarraitzea zaila da. Momentuz ez dut nire burua gaizki ikusten, baina nahia-go dut orain uztea, ongi nagoela, datorren urtean edo hemendik bi urtera gaizki uztea baino. Hau da, esaten den bezala, nik futbola uztea, futbolarik ez uztea baino. Alde horretatik, ongi noa, pozik.

Aralar Mendi areto futbol taldea zure bizia izan da.

Bai, garrantzitsuak ez diren gauzen artean gauza garrantzitsuena izan da (kar-kar). Niretako hori izan da areto futbola, nire bizitza. Zenbat lan areto futbol taldea aurrera ateratzeko, zenbat asteburu handik hona... bizi erdia asteburu guztiak futbolarik eskainita. Orain beste gauza batzuk etorriko dira. Kopa hori irabazi ez izanaren arantza horrekin noa, baina pozik. **Zure ibilbidea kopa lortuta agurtzea sekulakoa litzateke.**

Bai, baina ezinezkoa izan da. Guk ez dugu inoiz jokatu ligak eta kopak irabazteko asmoz; gure herriarendako jokatu dugu, gure herrian zerbait egoteko eta gure herriko jendeak jokatzeko toki bat izan dezan. Beraz, alde horretatik kontentua gaude lortu dugunarekin. Taldekideei azken entrenamenduan esan nien bannindoala, eta eskatu nien taldea zaintzeko, Uharte Arakilen dugun gauza hobereatariko bat delako. Ez da nahikoa baloratzen, eta behar bezala zaindu behar da. **Etorrizun batean zure burua taldea entrenatzen ikusten al duzu?**

Ziurrenik guztiz ezingo dut utzi; tarteka entrenatzera joango naiz, eta saiatuko naiz taldeak gertu egoten, taldea animatzera Larrebieta frontoira joaten, tarteka Iruñera joaten, baina entrenatzaile gisa momentu honetan ez naiz ikusten. Orain asteburuak aprobetxatu nahi ditut pixka bat, baina gero ikusiko dugu.



Iskiza Sakanako taldea, Nafarroako Taldekako Txapelketan euren ariketa defendatzeko prest. ISKIZA

Iskizako gimnastak, denboraldi amaiera bikaina despeditzera

GIMNASIA ERRITMIKOA NKJ-etako Nafarroako Taldekako bigarren fasearekin txapelketari amaiera eman die Iskiza Sakanak. Egindakoarekin "oso pozik", larunbatean Zelandiko ikasturte amaierako erakustaldiarekin agurtuko dute denboraldia

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko Taldearendako hilabete gogorak izan dira azkenekoak, lehendabizi Nafarroako Kirol Jolasetako (NKJ) Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa izan baitzuten jokoan, tartean Espainiakoa, eta segidan NKJ-en Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa hasi baitzen. Baina berehala merezitako atseden hartzeko tarte izango dute, 2023/2024 denboraldiaren amaiera heldu baita.

Ekainaren 1ean NKJen Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketako bigarren fasea jokatu zen Berriozarren. Iskizako gimnastek urrian hasi zuten haien prestaketa, eta bederatzi hilabete hauetan gimnastek "lan handia" egin dutela azaldu du Iskizako Olaia Agirre koordinatzaileak.

Talde gehiago

Denboraldi honetan txapelketetan lehiatu diren taldeen kopuruak gora egin du Iskiza Sakanan. Guztira bost talde parte hartu dute: kimuen mailako taldeak, infantilen mailako bi talde, kadeteen mailakoak eta jubenen mailakoak. "Kategoria ezberdinetan parte hartu dute, hiruk laugarren mailan eta bik hirugarren mailan, kimuen taldeak eta jubencil mailakoak. Hirugarren mailan maila altuagoa da eta kontentu gaude gure taldeek mailari eutsi diotelako" gaineratu du Agirrek.

"GURE GIMNASTAK MOMENTU GORENEAN IRITSI DIRA TALDEKAKO TXAPELKETARA"
OLAIA AGIRRE

NKJ-etan egindakoarekin "oso pozik" daude entrenatzaileak, gimnastak, eta familiak. "Bederatzi hilabetetan egindako lan guztia erakusten saiatzeko unea dira txapelketak, eta gimnasia erritmikoan 2 minutu eta 30 segundotan egin beharra dago. Oso zaila da 2 minutu horiek bikain ateratzea, entrenamenduetan ez dauden faktore gehiagok eragiten baitute: urduritasunak, publikoak... Baina aipatzekoa da gure gimnastak oso ondo aritzen direla lehiatzerako orduan, eta emaitzetatik at merezimenduak ikusteko gai direla. Gainera, emaitzak ez daude soilik gimnasten eta entrenatzaileen esku, epaileek ere esku hartzen baitute".

Momentu "gorenean"

NKJen Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan talde



Iskizako boskotea, dominekin. ISKIZA



Iskizako gaztetxoak, monitoreekin. Eskuinean, Olaia Agirre koordinatzailea. ISKIZA



Iskizakoak, tapizera ateratzeko prest. ISKIZA

guztiak "bikain" aritu zirela nabarmendu du Agirrek. "Gimnasta guztiak zoriondu nahi ditugu, taldean egindako lanagatik batez ere. Gure gimnastak momentu gorenean heldu dira txapelketa horretara".

Emaitzei dagokienez, infantilen eta haurren kategorian (hirugarren maila) Iskiza Sakanak bigarren postua lortu zuen txapelketaren bigarren fase honetan. Jubencilen kategorian (hirugarren maila), Iskiza Sakanak lehenengo fasean lortutako bigarren postua defenditzea lortu zuen bigarren fasean, sailkapen orokorrean bigarren sailkatuz. Bukatzeko, infantilen M taldea (laugarren maila) sailkapen oro-

korrean hirugarren postutik 0,10 puntu eskasera gelditu zen, laugarren postua lortuz. Iskiza Sakanako entrenatzaileak "oso kontentu" daude ikasturte honetan Iskizako taldeek egindako lan eta esfortzuarengatik.

Ikasturteari, agur, Zelandin

Iskiza Sakanako ikasturte amaierako erakustaldia ekainaren 8an izango da, 10:45ean, Zelandi kiroldegian. "Erakustaldiarekin denboraldiari amaiera emango diote gimnastek, Altsasuko eta Arbizuko eskolako neskek eta txapelketako gimnastek. Gurekin, beti bezala, Olaztiko Sutegi taldea egongo da". Bertara gerturatzera gonbidatu du Agirrek.

Dantzaren magia eta haria

Dantza lehiaketa denboraldi "oso baikorra" izan dela esan dute Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako irakasleek; helburua disfrutatzea eta dantzari bezala garatzen jarraitzea dela gaineratu dute. 'Harry Potter' eta 'Haria' jaialdiak prestatzen ari dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolan ikasturte "oso berezia" izan da Irantzu Gonzalez Azpiroz zuzendaria ikasturte hasieran ama izan zelako. "Oso pozik nago talde handi bat dudalako, urteetan zehar osatu duguna". Eskolak "sare bat" osatzen duela gaineratu du: "Nire amatasunaz gozatzeko aukera eman dit". Azaroan eskolaren zortzigarren urteurrena ospatu zuten, eta bertan urteetan ereindakoaz disfrutatzeke aukera izan zuela esan du Gonzalezek: "Ama izan ondoren lehenengo aldia zen ateratzen nintzena eta disfrutatzen egon nintzen. Harrituta gelditu nintzen irakasleek eta talde guztiak sortu zituzten koreografiekin". Igone Augusto Fernandez dantzaria eskola sortu zenetik ia hasieratik da irakasle, eta urte honetan zuzendariak beragan duen konfiantza ikusi du: "Nahiz eta elkarrekin egoteko denbora gutxiago izan, eskolarekin eta ekipoarekin askoz konektatuago sentitu naiz".

Dantza eskolan berrehun bat ikasle daude, haur hezkuntzako haurretatik hasi eta helduetara. Altsasun duen eskola ez ezik, Lakuntzan eta Beasainen ere delegazioak ditu. Dantza moderno, klasiko eta garaikide estiloak lantzen dituzte, baita yoga ere. Gonzalez eta Augustorekin batera, sei dantzari osatzen dute irakasle taldea. "Eskerrak eman nahi dizkiet Igone, Amaiur, Maitane, Yoli, Saioa, Leire... Eskolatik deskonektatzen utzi didate. Urteekin sortutako zerbait da, eta oso lasai utzi diet eskola. Ni egongo banintz bezala izan da".

"Lehiaketetara joatera animatzen gara beti zerbait baikorra ateratzen dugulako. Denboraldia ona izan da; nik uste oso ongi

egin dugula", esan du Augustok. Gonzalezek azaldu duenez, lehiaketetara "helduagoak" direnean eramaten dituzte, "beste modu batera disfruta dezaten". Txapelketetan parte hartzea esperientzia bat da: "Hemendik kanpoko dantzak ikusteko aukera ematen die, dantzariak ezagutzen dituzte, eta motibazio bat dute". Burgosera, Madrilera edo Bilbora joatea, jarraitu du zuzendariak, motibazio "oso handia" da: "Hainbeste gustatzen zaizun horretan garatzen jarraitzeko, hau da, dantzari bezala garatzen jarraitzeko". Hala ere, dantzari bezala oholtzara ateratzeko edozein une desiratu behar dutela gaineratu du: "Dantza arte bat da, eta arte hori adierazten duzun edozein aukera garrantzitsua da. Dena eman behar duzu beti".

Denboraldia

Aurtengo denboraldian lau txapelketetan parte hartu du Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako, sei talderekin. Oihuarima taldeak Burgosko Orbe jaialdian, Bilboko Dantzatun eta Euskaldiko Nazionalean parte hartu du, eta bi sari irabazi ditu: Orben garaikideko aurreprofesional kategorian hirugarren saria eta Marcos eta Paula dantzari errebelazioa, eta Nazionalean hirugarren saria. Maitesua taldeak Orben, Dantzatun eta Nazionalean parte hartu du eta Burgosen Youth Jazz kategoriako lehenengo saria irabazi du, eta Izarrak saria Nazionalean. Berpiz-

BI IKUSKIZUN EGINEN DITUZTE: 'HARRY POTTER' EKAINAREN 15EAN ETA 'HARIA' 22AN, IORTIAN

tuk Burgosko Orben parte hartu du, Absolutu kategorian bigarren saria irabaziz, eta Nazionalean ere parte hartu du. Denboraldiarekin amaituz Sua, Ilunabarra eta Propulsion taldeek Madrilgo BSDansa New Talets lehiaketan parte hartu dute; Suak bigarren saria irabazi du eta Ilunabarrak eta Propulsioneak hirugarren saria.

Jaialdiak

Ikasturte amaierako bi ikuskizun prestatzen ari dira, Iortian: ekainaren 15ean, *Harry Potter* haurren taldeekin eta, ekainaren 22an, *Haria* ikuskizuna gazte eta helduen taldeekin. "Musika eta kontestua Harry Potterrena da, baina gure ibarrera ekarri nahi genuen eta Lakuntzan Aralar eta San Saastin etxeak izango dira eta Altsasun hiru desagertutako herrien izenak berreskuratu ditugu: Elcuren, Saratsu eta Urayar". Magia eskola, Hogwarts, Urban dago, baina *muggle*-k ezin dute ikusi.

Lehenengo jaialdian gai bat aukeratzen zuten eta horren inguruntan egiten zituzten koreografiak, baina musikalak egiten dituztenetik "izugarri gustatzen zaie talde bakoitza pertsonaia bat delako. Geroz eta antzerki gehiago sartzen dugu". Interpretazioa "oso garrantzitsua" dela gaineratu du Gonzalezek: "Inprobisatzerako orduan asko laguntzen dietelako". Inprobisatzea asko kostatzen zaie, "eta honekin askatzen dira".

Haria jaialdia "oso berezia" izango dela esan du zuzendariak. "Hari bat eman nahi izan diogu, inoiz baino hobe esanda, eta iruleendako omenaldi bat izango da; haria artiletik ateratzen dela...". Sorpresak egongo direla aurreratu du.




Maitesua, Berpiztu eta Oihuarima, irakasleekin, Euskadiko Nazionalean. UTZITAKOIA



Ilunabarra, Sua eta Propulsion taldeak Irantzu eta Igone irakasleekin, Madrilén.



Maitesua taldea Euskadiko Nazionalean dantzan. UTZITAKOIA



Mitxel Elortza Exea idazlea 'Barruan duguna' liburuarekin. UTZITAKOA

"Ipuina lagungarria izan daiteke dolu prozesuan"

MITXEL ELORTZA EXEA IDAZLEA

Doluaren inguruko 'Barruan duguna' eta euskal mitologiari buruzko 'Eki, Libe eta Urrezko ezkurra' liburuen ipuin kontaketa egingo du Altsasun, ekainaren 13an

E. C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Barruan duguna eta *Eki, Libe eta Urrezko ezkurra* ipuinen kontakizuna egingo du Mitxel Elortza Exea idazleak Nekane Suso Biain ilustratzailearekin batera, ekainaren 13an, osteguna, 18:00etan, Iortia kultur gunean. Altsasun egoteko "ilusio handiarekin eta gogotsu" dago.

'Barruan duguna' doluari buruzko ipuina da. Zerk eraman zaitu doluari buruz hitz egitera?

Gizartean kosta egiten zaigu bai sentimenduei buruz bai heriotzariburuz hitzegitea. Urteak neraman horrekin buruan eta banekien zer edo zer idatzi behar nuela. Gainera, Euskal Herrian ospakizun oso garrantzitsu bat berrasmutzen ari da, Gau Beltza edo Arimen Gaua, eta hori oso ondo uztartu daiteke doluarekin. Gau Beltza bada maite ditugun pertsona horiek hurbiltzen garen gau bat, oso berezia, eta pentsatu nuen zergatik ez bi gai horiek uztartuta doluaren inguruko zerbait idaztea.

Bost eta hamar urte bitartekoei zuzenduta dago, baina edozeinek irakur dezake, ezta?

Jendeak askotan galdetzen dit zenbat urtera bideratuta dagoen ipuina, eta niri ez zait gehiegi gus-

tatzen adin tarte batera mugatzea. Edonork irakur dezake eta, gainera, adinaren arabera irakurketa bat egingo da eta hori ere aberasgarria eta interesgarria da.

Ilustrazioen beste irakurketa bat ere egin daiteke?

Dudarik gabe. Album ilustratu bat da; album ilustratuetan testu eta irudien arteko oreka ezinbestekoa da eta hor irudiak pisu handia eta zeresan handia dauka. Horregatik, ipuin honen atzean, oreka horretan, lanketa handia dago. Nik ipuina idatzi nuen, baina Nekane eta bion artean lan talde bat egon da pentsatzeko hitzetan adierazitako hori nola irudikatu genezakeen. Ipuina ez da narratiboa; olerkia, errimekin, idatzia dago eta horrek egiten du umeentzat lehenengo irakurketa batean ulertzeko pixkatxo bat zailago izatea eta horregatik saiatzen naiz beti bigarren buelta bat ematen eta horretan solaskideekin ipuinari

"BARRUAN DAGOENA ASKATZEKO EZINBESTEKOA DA EMOZIO GUZTIEN BALIDAZIOA"

buruz hitz egiten. Horretan bai zentratzen gara irudietan. Irudiek asko kontaktzen dute.

Dolua tristuraren lotu duzu edo modu positiboan landu nahi izan duzu?

Horri bueltak ematen egon naiz. Gizartean badago mania handia negar ez egiteko, triste ez egoteko eta abar esateko; barkatu baina negar egin, oihukatu, behar duzuna egin. Ipuina *Barruan duguna* deitzen da, eta hori nahi dugu, barruan dagoen guztia askatzea. Horretarako emozio guztien balidazioa ezinbestekoa da. Saiatu naiz horri buelta bat ematen eta ipuinaren mezu nagusia da oroitzen ditugun pertsonak beti gure bihotzean egongo direla. Orduan, dolu bat pasatu behar dugu, barruan hutsune bat sentituko dugu, eta hor emozio asko egongo dira barrenean. Baina garrantzitsuena da zer egiten dugun emozio horiekin. Hor dago benetan garrantzitsuena. Umeei beste ikuspegi bat ematen saiatu naiz, egiaren bitartez, askotan ere izkututzen delako gaia. Uste dut hori ez dela bidea. Egia esan behar da, errealitatea; bihotzean izan ditzakegu pertsona horiek eta gurekin egongo dira.

Liburu honek zer emango dio dolu prozesuan dagoen pertsona bati?

Prozesu horretan laguntzeko euskarri edo baliabide bat. Ez da antidoto bat, hori esatea asko litzateke, baina bai lagungarri bat. Azken finean, enpatia. Egoera horretan dagoen pertsonaren lekuan jartzea eta ikustea ez dagoela bakarrik prozesu horretan, jende askok pasatzen duela.

Eki, Libe eta Urrezko ezkurra-rekin bidaia bat proposatzen duzu. Nora?

Exiburu mundu magikora non gure protagonistak izaeraren arabera galtzagorri, herensuge, sorgin edo basegeinu bilakatuko diren. Abenturaz beteriko istorio ziragarria da. Beste pertsonaiak ere agertzen dira: lamiak, tartalo, Mari aipatuko da... Saiatu naiz kondairak kontaktzen duena errespetatzen. Gehienbat idatzi dut uste dudalako ikastetxetan

eta etxeetan euskal mitologia gero eta gutxiago lantzen dela; uste dut zerbait oso gurea eta ederra dela. Alde batetik, irakurzaletasuna bultzatzeko eta besetik euskal mitologia umeei gerturatzeko idatzi dut.

Nolakoa izango da Altsasuko ipuin kontaketa?

Pianoa eramango dut eta obra bat jotzen hasiko naiz. Barruan dugunaren irudi batzuk proiektatuko ditugu, gehiegi erakutsi gabe, misterioa mantentzeko, eta orduan hasiko gara haurrei galdetzen ea zer ikusi duten eta zeri buruz izan daitekeen ipuina. Kontakizunaren ondoren Nekane azalduko du nolakoa izan den sortze prozesua, krisantemoen inguruan hitz egingo du ere. Garrantzia handia du kontakizunean. Hausnarketa txiki bat egingo dugu eta tailerra egingo dugu.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Eguzkitik babestea

Gaurkoan modaren historia alde batera utziko dugu eta eguzkiaren arriskuaz hitz egingen dugu. Eguzkiaren irradiazioa oso garrantzitsua da D bitaminaren sintesian, beraz, kaltzioaren xurgapenean, baina aldi berean arriskutsua da oso.

Hori dela eta, babestea beharrezkoa da. Erretzea ekiditeko eta beltzarantzea politago izan dadin, hona hemen aholku batzuk gure azala eta gure gorputza zaintzeko.

Eguzkitan jarri baino lehen, azala esfoliatzea gomendatzen dute adituek, beltzarana iraunkorrago izan dadin eta uniformeago. Esfoliatzen ez bada, hildako larruazala lehenik belztu egiten da, eta azkarrago joaten da geruza hori askatzen denean.

Lehenik eta behin, krema eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago jarri behar da. SPFak edo FPSak zer esan nahi duen jakin behar da; eguzki babesaren faktorea da eta kremetan lau zenbaki desberdin agertzen dira: 15, 30, 50 eta 50+.

Zenbaki horiek multiplo bat dira, eta adierazten dute zenbat minututan jar zaitezkeen eguzkitan erredurarik jasan gabe, hau da, zenbat denboran babesten zaituen kremak UVB izpietatik. Minbiziaren aurkako elkarteak azaltzen duenez, SPF 15 duten eguzki-babesleek UVB izpien %93 inguru iragazten dute, 30 dutenek %97 inguru eta 50 dutenek %98.

Momentua eta kantitatea ere garrantzitsua da. Aurpegian bi hatzetan sartzen dena bota behar da, eta gorputzean txupito edalontzi batean sartzen dena. Maiztasuna SPF-ren zenbakiaren arabera izan daiteke, baina bizpahiru ordutan errepikatu behar da. Kontuan hartu behar da, gure kremaren etekina uretan edo izerditan bagaude galdu egin daitekeela.

Oso garrantzitsua, krema ez dugu bakarrik udaran erabili behar, neguan ere behar barrezkoa da, minbizitik babesteaz gain, zimurra eta orbanak babesten lagunduko ditu, eta aurpegiari hidratazioa emango dio.

Oso garrantzitsua da hidratatzea eguzkia hartu ostean; horregatik, ezin da ahaztu AFTER SUNa erabiltzea. Erre ez bagara ere, hidratazioa berreskuratzeko eta beltzarantzea mantentzeko erabili behar da.



Beietz! taldearen kontzertua. UTZITAKOIA

Betiko esentzia rock ukituekin

Beietz! taldeak bederatzia abestiz osatutako 'Sutan' diskoa kaleratu du 2024an. Izen bereko bideoklipa ere ikusgai dago. Taldeaz gozatzeko modu hobereana zuzenekoak direla esan du Hiart Leitzak. Hurrengo kontzertua: ekainaren 15ean, Agurainen

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU
2018ko Arbizuko festetarako sortu zuten Beietz! taldea zazpi arbizuarrek. Abiapuntua kontzertu hura izan zen, eta ondoren kontzertu batzuk eman zituztela esan du Hiart Leitzak taldeko abeslariak. "Ondo joan ziren". 2019an *Erraietatik* diskoa kaleratu zuten, 2022an *Askatu Aingura* diskoa eta 2024an *Sutan* diskoa kaleratu dute, izen bereko abestiaren bideokliparekin batera. Aurretik ere *Beldurraren balada* diskoan dagoen abestiaren bideoklipa kaleratu zuten ere. Hala ere, Beietz! entzuteko modu hobereana zuzenekoak direla esan du abeslariak: "Dantzatzeko musika da".

Zeltik parranda deitu zioten taldearen estiloari. Beietz! kontzertuan ikusteko hurrengo aukera ekainaren 15ean, larunbata, Aguraingo Herriko taber-

naren urteurrenean izango da, Dupla taldearekin batera. Udan ere zuzenekoak aurreikusituz, baina oraindik datak konfirmatzeke dituzte.

Garapena

Erraietatik diskoa Beietz! taldearen aurkezpen diskoa zen, "eta pandemia ospetsua etorri zen". Taldeak "erabateko etenaldia" izan zuen, musikari askok bezala, "baina gure hasiera bezala zen; ezin izan genuen hasi". Pandemiaren ondorengo urtea ona izan zela azaldu du Leitzak, kontzertuak eman zituzten, baina ondoren "pixka bat" gelditu dela azaldu du: "Zergatik? Fenomeno bat ikusten ari gara; talde batzuk jende asko eramaten dute eta beste batzuk, gu bezalakoak, kontzertuak ematen ditugu eta jendea badago, baina gehiago etor zitezkeen".

Sortu zenetik Beietz! taldeak garapen bat izan duela esan du abeslariak. "Hasiara batean herriko festetarako herriko jendearekin sortutako taldea izan zen, eta birkokatzen joan gara. Talde batean zaila da guztiok helburu berdina izatea; kontzertu baterako sortu genuen, batzuk jarraitzeko helburua genuen eta beste batzuk horretarako bakarrik edo zerbait txikiagoa nahi zuten". Badira bidean taldea utzi duten musikariak, "harremana ona daukagu, herrikoak dira", baina taldean beste herrietako musikariak hartzen joan dira.

"TALDEA DINAMIKO DA, ASKO MUGITZEN GARA, DANTZATZECO MUSIKA DA; FESTA GIROKOA"

"Beste asmo batzuk dituztenak". Esaterako, akordeoilaria Sakana-rekin harremana duen Tafallakoa da eta Aguraingo bi kide daude orain.

Musikari dagokionez "hasierako izpiritua" mantentzen du Beietz!-ek. "Agian hasieran gehiago folkari lotutakoa zen eta orain erritmo rockeroetara joan gara". Oinarrian punk erritmoa dagoela azaldu du Leitzak. "Gertatzen dena da sartzen dituzun instrumentu edo ahotsaren arabera leundu egiten duela pixka bat". Zeltik parranda deitu zioten egiten zutenari: "Polita eta dibertigarria iruditu zitzaigun. Rock doinuak, punk, batzuetan ska nahasten dugu, zeltiar doinu horiek... Horrela jarri genion". Esperimentatzen joaten dira eta azken diskoan, esaterako, gaita digitala sartu dute ere. Alberto Collado galiziar gaita jole ezagunak grabatu ditu abestiak.

Sutan da Beietz! taldeak kaleratu duen azken diskoa. Bederatzia abestik osatzen dute, eta horietako bat instrumentala da. "Diskoari dagokionez baditu ska doinu batzuk, aurrekoan probatu genuen horrekin, *Sakon* infinituan abestia, adibidez; *Saltoka* azkarragoa da; gero *Begiraden Mirabe* abestiak doinu mexikarrak ditu... Esperimentatzen". *Furra furra* Oskorriren abestiaren bertsioa ere egin dute. "Zuzenekoetan jendeak ezagutzen duenez gustatzen zaio eta gure estiloarekin bat egiten du". Letren gaiek ere "pixka bat dene-

tarik" lantzen dute: *Hauts eta kez* abestian Palestinaren gaia hartu dute, "Entzuten dira oli-bondoak negarrez, ikusten da zerua hauts eta kez dio estribilloak"; *Noraezean* diskoari abiapuntua ematen dion abestiak aldaketa klimatikoari buruz hitz egiten du. "Denak poesiarekin, ez dira oso zuzenak".

Zuzenekoak

Beietz! zuzenekoetan aritzeko taldea dela uste du Leitzak. "Abestiak eta letrak entzuteko ere, baina batez ere zuzenean aritzeko taldea da. Dinamikoa da, asko mugitzen gara, dantzatzeko musika bat da. Festa giroan egoteko musika bat da; zeltik parranda, hitzak esaten du". Abeslariak kontatu duenez, kontzertuetan jendea "lasai" entzuten hasten da, pixkanaka "gerturatzeko" joaten da eta azkenean "dantzatzeko eta saltoka" amaitzen dute: "Modu aktibo batean parte hartzen, eta eskertzen da". Sakanan ez omen da hori gertatzen.

Leitzarendako Beietz! taldea eta eszenatokietara igotzea "opari bat" da; "pixka bat hustu bezala. Egia da batzuetan kontzertu bat dagoenean nekata gaude edo, baina gero oso ondo pasatzen dut. Askatzeko modu bat da". Aurretik Skalariak taldearekin "bizimodu" bat izan zen, "eta bukatzean pentsatzen genuen ez genuela ezer gehiago egingo, baina beti egon da barruan".

"Gure zatia ongi zaintzeko konpromisoa hartu dugu"

Etxarri Aranazko ibilbideen mantenu eta birmarkatze lanetan buru-belarri ari dira herriko elkarteetako hogeitun bat boluntario. Horien artean dago Larrañeta elkarteak Miguel Ulaiar. Peio Ulaiarrekin batera Basopokaletik Txaigorrrainoko tartea egin dute

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANAZ

1 Mendizaleen artean aspaldiko ezaguna: bizitza mendiari lotuta.

Beti mendiari begira (kar-kar). 16 urte nituela hasi nintzen mendian, Udaberri elkartearen. 35 urte egin nituen Udaberrin, baina gero Larrañetan sartzea erabaki nuen, mendiko giroko jende gehiago zegoelako. Eta hala segitzen dugu, 16-17 urte inguru, mendiko giroan.

2 Sakanako Mendizaleak taldean ere bai, hasieratik.

Fundatzaileetako bat izan nintzen, Udaberri elkartearen jaio baitzen Sakanako Mendizaleak. 2025eko abenduan 40 urte beteko dira. Sakanako mendi klubak deitu genituen, hilean behin guztien artean mendi irteera bat egitea zer iruditzen zitzaizkien galdetzeko. Orduetik, ez gara gelditu. Lehendabiziko 13 urteetan presidente



Miguel Ulaiar Mendiola, Etxarri Aranazko Trikuharrien Ibilbidea markatzen. UTZITAKOIA

izan nintzen. Duela 3 urte jubilatu, eta juntan sartu naiz.

3 Etxarri Aranazko udaletik bilerrara deitu zintuzteten elkarte guztiak, herriko mendi ibilbideak markatzeko.

Arkaitz Razkin zinegotziarekin herriko elkarteetatik 20 ordezkari inguru bildu ginen, eta birmarkatze lana egiteko konpromisoa hartu genuen. Horretarako, lehenik eta behin ikastaro bat jaso genuen. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko hiru kide etorri ziren azaltzera.

4 Zein ibilbide ditu Etxarri Aranazkoak?

GR-323, Bernoa galtzadakoa, Etxarri, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain hartzen duena. 50 km baino gehiago dituelako da GR (Ibilbide Luzeak), eta marka gorria du. Gainontzekoak PR-ak dira (Ibilbide Laburrak). Bat Trikuharrien Ibilbidea da, 12 km baino gehiago dituen marka horia duena, eta bestea Haritz Zaharren Ibilbidea da, 12 km baino gutxiago dituen marka berdea duena. Aparte, beste bi GR pasatzen dira Sakanatik, GR-12, Euskal Herriko ur-mugaren ibilbidea deitzen zaiona, Etxegarrietik Lizarrustira eta Aralarra sartzen dena, eta bestea GR-20 da, Aralarko Bira. Bi GR hauek mantentzearen ardura federazioarena da, baina gainontzekoena udalarena.

5 Ibilbidea nola markatu, ikastaroan azaldu zizueten?

Bai. Ibilbide guztiak markatzeko orduan goian marra txuri bat jartzen da beti, eta haren azpian, ibilbidearen distantziaren arabera, beste kolore bat: GR-etan gorria, eta PR-etan horia edo berdea. Pintura markak zuhaitzetan egin behar dira, edo malakorretan, baina inoiz ez harri solteetan edo lurrian, elurra egiten badu ez direlako ikusiko. Arrastoak urte guztirako erabilgarriak izan behar dira.

6 Ibilbide ezberdinek topo egiten dutenean nola markatzen dira?

Etxarri Aranazko kanpinaren inguruan hiru ibilbideek bat egiten dute eremu konkretu batzuetan. Orduan, ibilbidearen garrantziaren arabera margotzen da, handitik txikira: txuria, gorria, horia eta berdea. Trikuha-

rrien ibilbideak eta Haritz Zaharrenak ere puntu batzuetan bat egiten dute, GR-12ak ere Trikuharrienarekin bat egiten du, baita Bernoako GR-ak GR-12arekin.

7 Piketeak erabiltzen dituzue?

Zuhaitzak ez dauden eremuetan erabiltzen dira piketeak, baina guk oso gutxi erabili ditugu. Baina, bestela, funtzionamendua bera da, aipatutako kolorez margotzen dira.

8 Nola banatu dituzue lanak?

Binaka banatuta, bikote bakoitzari ibilbidearen puska baten ardura eman ziguten. Ni Peio Ulaiarrekin ibili naiz, eta Basopokaletik Txaigorrraino, hori zen birmarkatu behar genuena, 16 km inguru. Eurria zela eta ezin ibili aritu ginen, baina dagoeneko gure zatia bukatu dugu. Ustedut oraindik zerbait gelditzen dela markatzeko, baina lanak martxa onean daude. Ahal bada San Adrian egunerako bukatuta egotea nahi dute.

9 Pintatzearekin batera, beste-lako lanik egin duzue?

Piketeren bat erorita dagoela ikusten badugu, edo sasi asko dagoela eta garbitu egin behar dela, udaletxean abisatu behar da, udal langileak joateko. Gure lana bakarrik birmarkatzea izan da. Trikuharrien ibilbidea nahiko zahartuta zegoen, orduan marka zaharrak ongi eskuilatu, garbitu, goroldioa kendu eta berri ere pintatu. Oso lan entretenigarria izan da. Oso gustura egon gara.

10 Bideak ongi markatuta izatea garrantzitsua da.

Zalantzarik gabe. Jende asko ibiltzen da Etxarri Aranazko kanpinen inguruko ibilbide horietan, eta seinaleak beti ongi egon behar dira. Ideia da urtero bakoitzak tokatu zaigun zati horri errepasso bat egitea, horrela bideak beti ongi mantenduta egoteko. Konpromiso hori hartu dugu. Bernoa GR-a duela lau urte markatu zen, eta datorren urtean etorriko dira federaziokoak ongi dagoen ikusteko, berriruz homologazioa emateko. Gauzak ongi mantendu behar dira.

11 Etxarri Aranazko udala zuekin kontentua egongo da.

Hori pentsatzen dugu (kar-kar).